

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 23a / 741. zenbakia

GABONAK/Olentzero, jaiotza eta Erregeak

Denon gustua egiteko ekitaldiak eta bisitak izango ditugu Gabonetan

UBANE MADERA

Aurten ere, jaiotza Laubide plazako berdegunean ipini dute. Gaur, barikua, inauguratuko dute. Errege oster arte ikusi ahal da. Bihar, berriz, 18:00etan aterako da Olentzero kalez kale. Eta urtarrilaren 5ean, Errege Magoak etorriko dira Arrasatera. Denon gusturako dago.

Gaur (barikua) iluntzean jaiotzako argiak piztuko dituzte. Azken urteotan moduan, Arrasateko jaiotzaren aldeko elkarteak ipini du, Izartxo elkarteak. Jaiotza bera eta Erregeen Ado-

razioa irudikatu dituzte, ez beretik; elkartekoen esanetan, Udalak lagundu arren, elkartea bera diru barik dabilelako. Hala, gaineratu digute norbait gertu badago laguntzeko, pozik onartuko diotela laguntza. Hiru kontu korronte eman dizkigute: Eukadiko Kutxan: 3035 0202 71 202.1.022 46.7; Kutxan: 2101 0123 98 0123 936 791 eta Caixan: 2100.1972.00.02.00059 461.

BIHAR: HORRA, OLENTZERO!

Bihar, berriz, Olentzeroren eguna da. 18:00etan iritsiko da Arrasatera. Honako ibilbidea egingo du: Nafarroa etorbidea, Biteri,

Garibai, Kontzezino, Leintzibar, Foruen plaza, Udala plaza, Zarugalde, Otalora, Maala, Portalioa, Erdiko kale eta plaza. 19:30ean agurtuko da Olentzero. Bitartean, Goikobaluk, Gabon kantak abestuko ditu, 19:00etan hasita.

TXORONPIO ETA TXORONPIA

Bestalde, Olentzeroren lagun Txoronpio eta Txoronpia aurten ez datozenez umeen gutunak auzoz auzo batzera, jaitxo antolatuko dute, Olentzerorendako gutun horiek batzeko, 12:00etatik 14:00etara, Seber Altubenean.

ARRASATE MUSIKAL ETA ERREGEAK

Gabonetako kontuekin segituz, abenduaren 31n Arrasate Musikaleko banda kalez kale ibiliko da musika jotzen, 11:30ean hasita. 13:00etan, berriz, bandak berak kontzertua egingo du, Amaia Udal Antzokian.

Bukatzeke, jakinarazi digutenenez, Errege Magoak ere Arrasatera bidean dira dagoeneko. Abenduaren 5ean iritsiko dira. 19:00etan aterako dira. Honako ibilbidea egingo dute: Abaroa, San Andres, Arimazubi, Udala plaza, Zarugalde, Maala eta Herriko Plaza (obren arabera).

Horren harira, Arrasateko Errege Kabalgata Komisioak dei egin du erregeekin zuzi-eramaile edo danbor jotzaile moduan joan gura duenak urtarrilaren 3an duela hitzordua, 19:00etan, San Viator Handiko jolaslekuan.

Erregeekin joaten den umeen abesbatzak, berriz, urtarrilaren 2an, 3an eta 4an, 18:00etan du hitzordua kantuen entseguak egiteko, parrokian.



Koro Zabaleta saltokiak irabazi du

Eguaztenean jakinarazi zituzten aurtengo erakusleihoko lehia-ketako irabazleak zeintzuk izan ziren. Hala, lehenengo saria Koro Zabaleta Oinetakoak dendakoei eman zieten; bigarrena Altuna Lurrindegikoei eta hirugarrena Troko jantzi-dendakoei. Inazio Lakuntza alkateak eta Udaleko bozeramaile Ines Aldaik eman zituzten sariak. /U.M.



ARRASATE PRESS

Nafarroa etorbideetik atera eta Herriko Plazara iritsiko da Olentzero, 18:00etan aterako.

LABUR

PPk bi emendakin aurkeztuko dizkie 2006rako aurrekontuei; batzarra, astelehenean

Alderdi popularreko bozeramaile Itziar Lamarainek jakinarazi digu bi emendakin aurkeztuko dizkiela aurrekontuei. Batean eskatzen dute 700.000 euroko partida gordetzea herriko goiko aldeko auzoetara iristeko (Jose Luis Iñarra, Santa Marina...) igogailua ipintzeko. Beste emendakinaren bitartez, berriz, Makatzenarako beste igogailu bat eskatuko dute. Kasu horretan, hasierako proiektuan aurreikusita zuten eskailera mekanikoak ipintzea, baina hori atzera bota dutela-eta egingo du PPK eskaera. PPrentz ustez, Makatzena berriro urbanizatu behar dutela-eta, hori aprobetxatu egin behar-koketuko igogailua ipintzeko. Bilkura astelehenean da, 09:00etan. =

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505
zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintza irudien produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/hitaragartti
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan da eta Kb jaitziera balakirik orduan behar du kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren alta ematea duan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora, * Vodafone: deitu 123-ra, * Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaitezue abesti eta logok. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu **902 01 21 48** telefonora.

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Ezbar | EBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Real | REAL

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aitormen (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Kardeloko berrak) | AMORE
Begiak okertuta (Lin Ton Toun) | BEGIAK
Bi Minutero (Hertzainak) | BIMINU
Dub minifest (Femin Maguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
Eti Sukarra (Eti Sukarra) | SUKAR
Ekoizpena (Eti Sukarra) | ELLOS
Emanandoko de la muerte (Eti) | ENAMO
Etorri (Eti) | ETORRI

Ezer ez da betiko (Kortatu) | EZER
Gora Herria (Nepo Gornak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Errean) | BELAIR
Haizera (Kortatu) | HAIZEA
Hegal egiten (Haci) | HEGAL
Ikusi (Kortatu) | IKUSI
Ilargia (Kortatu) | KEN
Inpernuen eta joko (Kortatu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Errean) | JOKIN
Kaixo (Kortatu) | KAIXO
Lau Teilatuta (Haci) | TOZLAU
Laztana (Laztana) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kortatu) | LOTUTA
Marea Gora (Kortatu) | MAREA
Mareta (Kortatu) | MARETA
Musturrek sartunde (Kortatu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME

SOINUAK (2 sms) LOGOAK (sms 1)

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bek) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoak) | BAI
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Barko Larrazandi) | BIZKAIA
Eperak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herria Euskaraz (Kortatu) | EUSKAL
Euskaldun berritaren bidia (Kortatu) | EUSKALDUN
Ez da posible (Kortatu) | POSIBLE
Fura Fura (Kortatu) | FURRA
Galizara nola (Kortatu) | GALIZARA
Gernikako Arbola (Kortatu) | GERNIKA
Haika Mui (Mikel Laboa) | HAIKA
Izaren haitsa (Kortatu) | IZARREN
Lepoa hartu ta (Pantxoak) | LEPOAN
Marielaren zai (Sorotan Bek) | MARINE
Nere herriko neska maite (Larrazandi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Duhalde) | NON

Salva (La Polka) | SALVE
Sari Sari (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Kortatu) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATXO
Txus (La Polka) | TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maika ta Iñaki) | BEXAMELA
Bokespok (Kortatu) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapiak) | HIK
Itsas ontzi baten (Kortatu) | ITSAS
Kupela (Egido eta Larrazandi) | KUPELA
Mila galdera (Maika / Maider) | MILA
Nirekin (Kortatu) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kortatu) | HIRA
Txanpon baten truke (Maika / Maider) | TXANPON

Oil Ama Euskal Herria (Larrazandi) | OIAMA
Irauki (Kortatu) | IRAUKI
Txabarmasbainak (Mikel Duhalde) | TXATXA
Txoria bori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Kortatu) | ZAINDU

Herrikoia
Bagare! BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN

Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijia (Kortatu) | JAJA
San Fermín | FERMIN
San Martzialako alardea | SAN MARTZIAL

LAU1
LAU3
NUKLEAR
LORA
SORGIN
ARRANO

Soinu izena | KODEA
1,2,3,4...Real!! | REAL
Athletic luep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu... Aitare ta semea... | AITAREN
Hartu... Ansar | ANSAR
Hartu... Argentinarra | ARGEN
Hartu... Mexikarra | MEXIKO
Hartu... Miamol | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzi | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazul (pilota) | MILAZU
Txalparta | TXALA
Xtootx | TXOTX

Presoen eskubideen aldeko atxikimenduak batzen dabilta

UBANE MADERA

Presoen aldeko Arrasateko Etxerat eta Portalaira elkarteek bat egin dute presoen eskubideen defentsan. Herritarren, kultura elkarte, sindikatu, irakasle eta bestelako atxikimenduak batzen dabilta presoen eskubideen alde. Prentsaurrekoan, Ibaetako dokumentuaren alde egin zuten.

Hain zuzen ere, Ibaetako dokumentuaren arabera, "espetxeetako egoera okertzen ari da. Presoek pairatzen dituzten bizi baldintza gogorren adierazle, 20 dira dagoeneko espetxeetan hil diren lagunak. Presoen gehiengo izugarria (%98,5) Euskal Herritik kanpoko espetxeetan dago".

Hori jakinarazteaz gain, herriko presoen egoera ere aipatu zuten asteleheneko prentsaurrekoan. Emandako datuen arabera, herriko 18 presoetatik, hamar isolamenduan daude; bi erizaindegian; sei kartzela prebentiboan; eta lau zigorraren 3/4ak beteta. Bestelakoan artean, jakinarazi zuten presoen senideek astero 2.000 kilometro inguru egin behar izaten dituztela haiek bisitatzeko.

Hori guztia salatu eta presoen eskubideak aldarrikatzeko, atxi-



Joseba Garitaonandia eta Iker San Pedro mahaian; atzean, atxikimendu emaile batzuk.

kimendua dabilta eskatzen Arrasateko elkarte eta bestelakoei.

TRATU DUINA ETA ZENBAIT ESKUBIDE

Hain justu ere, zortzi punturako atxikimendua eskatu dute. Besteak beste, presoek tratu duin eta begirunezkoa jaso dezatela eta osasun, komunikazio, aitasun edo amatasun, hizkuntza eta hezkuntza eskubideak izan ditzatela.

ATXIKIMENDUAK

Dagoeneko batu dituzte zenbait atxikimendu: Bertso Eskola, Lore Gazteak eta *Arrostaiz* dantza taldeak, Arrasateko Gaitariak, Ttakun txalaparta taldea, LAB, zenbait abeslari (Juan Sangre, Ines Osinaga eta Jul eta Txerra Bolinaga, esaterako) eta Arizmendi, herri eskola, Institutu eta EPAko zenbait irakasle, bestek beste.

Azoka txikia, Garibaiko parkingaren goiko aldera

U.M.

Arrasatera sartzeko sortzen diren auto-ilaren arazoa tranbiarekin konponduko da. Azoka txikia, berriz, Garibain ipiniko dute eta Maalatik ospitalerainoko tartea oinezkoendako izango da.

Halakoak eta beste adierazi zituen Inazio Lakuntza alkateak Arrasate Irratian. Auto-ilaren gainean esan zuen autobidearen etorrerak auto-ilaren arazoa Elorregitik Epelera mugitzea eragin duela eta momentuz ez dagoela irtenbiderik, batez ere nor bere autoan etortzen bada. Horren harira, alkateak uste du tranbia ipintzen dutenean konpon daitekeela arazo hori.

Azoka txikiari dagokionez, berriz, alkateak uste du gaur egun leku desegokian dagoela. Hala, Garibaiko parkingaren gaineko aldea leku aproposagoa delakoan, hara eramango dutela esan zuen.

Bestalde, Garibaiko obrekin lotuta, esan zuen Udalaren asmoa dela etorkizunean Maalako Errabaletik ospitalerainoko zatia oinezkoendako izatea. Beraz, baliteke Garibai etorbidea berriro ez zabaltzea ibilgailuendako.

ESKUALDE OSPITALEA

Bukatzeko, eskualde ospitalea txiki geratu dela-eta, Inazio Lakuntzak jakinarazi zuen datoren urtearen erdialde inguruan hasiko direla ospitale berria eraikitzeke lurrak mugitzen.

LABUR

Gabonetako Loteria dela-eta gaizki-ulertzea izan dute Arrasateko Institutuan

Arrasateko Institutuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasleak loteriako partizipazioak saltzen ibili dira. Baina kontua da partizipazioetan agertzen den zenbakia (48.218) ez dela zuzena. Hau da, eurak saltzen dabilzan partizipazioak beste zenbaki batenak direla: 82.368 zenbakiarenak, hain zuzen ere. Beraz, Institutukoei loteria erosi dietenendako abisua bidali digute, haiek jakin dezaten 82.368 zenbakia dela erosi dutena.

Edertasun

gida



AUSART
Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo
Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA
ILEA
UNISEX
Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore
Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

Alkatearen kalitatezko botoarekin onartu dute Caixaren proposamena

UBANE MADERA

Azkenaldietan moduan, oraingo asteko osoko bilkuran ere alderdien arteko eztabaidak eta desadostasunak nabarmendu dira. Ezohiko batzarra egin dute, gai bakarren gainekoa. Udalbatzarrak bi proposamen zituen aukeratzeko, etxebizitzak eraikitzeko.

Zerrajera inguruan etxebizitzak eraikitzeko proposamenak ziren biak: bata Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak egindakoa eta bestea Caixak egindakoa. Caixaren proposamenaren arabera, babes ofizialeko 148 etxebizitza eraikiko dituzte, 35 urtetik beherrako gazteei eta 65 urtetik gorako adinekoei alokairuan emateko.

Etxebizitza Sailaren proposamenaren arabera, berriz, babestutako 148 etxebizitza sozial eraikiko dituzte alokairuan emateko eta beste 216 etxebizitza babes ofizialekoak, saltzeko.

HAMARNAKO BERTINKETA

Bilkura hasi eta berehala, Ezker Batuak eskatu zuen batzarra bertan behera uztea, ustezko forma akatsengatik eta ustezko irregularitasunengatik. Baina ez zuten proposamena onartu. Ondoren, eztabaida sakon eta luzea izan zuten alderdiek. Oposizioak (PSEK eta PPK) udal gobernuari iluntasun, irregularitasun eta bestelako zenbait salaketa egin zizkion. Azkenean, puntu bakoitza pare bat bider bozkatu zuten, hamarna berdindu zuten-eta: EA, EAJ eta Aralar Caixaren proposamenaren alde eta PSE-EE, PP eta EB Jaurlaritzaren proposamenaren alde. Bigarren bozketan, alkateak kalitatezko botoa eman zuen Caixaren proposamena onartzeko.

DATA ZEHATZIK EZ JAURLARITZAK

Imazio Lakuntza alkateak bere jarrerara esplikatu zion: "Logikoagoa da erakunde publikoarekin sinatzea, baina ikusten baduzu atzetik ez dagoela ez data ez konpromiso eta ez ezer, ematen du Jaurlaritza ez dagoela oso konbentziturik esandakoa egingo duenik Arrasaten. Nik dakidanez, dute 100 herriren eskaera babes



Zerrajera gunean eraikiko ditu Caixak babes ofizialeko etxeak.

MIKEL LUPIAÑEZ

"Caixak proposatzen du 148 etxebizitza eraikitzea, gazteendako eta nagusiendako"

ofizialeko etxeak egiteko. Caixa, berriz, gertu dago egiteko eta gainera produktu berria proposatu digu: gazteendako eta 65 urtetik gorakoendako etxebizitzak". Horrez gainera, alkateak zera gogorarazi zigun: "Zerrajera gunean egiten dabilen etxeak egiteko egon da zazpi urte (Jaurlaritza). Caixak eskaintzen duen aukerak esan nahi du, berriz, 2006ko maiatzean ikusiko ditugula makina hondeatzaileak lurak mugitzen".

Aralarrek idatzi baten bitartez azaldu digu Caixaren proposamenaren aldeko botoa. Labur esanda, zera dio: "Ekimen publiko bati gure baietza ematea nahia go genuke, baina aurkeztutako bien artean, pribatuak interes publikoari zuzenago eta eraginkorrago erantzuten diolako baietza eman beharrean aurkitu gara". Gaineratu du Jaurlaritza-

"Eusko Jaurlaritzak proposatzen du 148 etxe alokairuan emateko eta 216 saltzeko"

ren proposamenak ez dituela "inolako eperik, datarik edo aurrera biderik ziurtatzen".

KONTRAKO BOTOAK

EBren ustez, berriz, "Jaurlaritzaren proposamena askoz sozialagoa da". Datak direla-eta, berriz, honako esan digu Ander Rodriguez bozeramaileak: "Caixak aurkeztu duen kronologia fantasiosoa da, eta gainera dute klausula bat esaten duena 12 hilabetez atzera daitekeela lana; beraz, eurek bukatuko lukete 2009ko martxoan eta Jaurlaritzak 2009ko irailean. Gainera, kontuan hartu behar dugu Caixak 148 etxe egingo dituela eta Jaurlaritzak 300 baino gehiago".

Bestalde, PPK eta PSE-EEk salatu zuten ez dietela informazioa garaiz eman eta uste dute presa handiegarekin jokatzeko dabilzala "Arrasaterendako horren garrantzitsua den zerbaite erabakitzeko".

Emakumeen kontrako biolentzia salatu behar, berriro

U.M.

Astelehenean, hilak 19, kale bilkura egin zuten Dominika Leon emakumea hil zutela salatzen. Hilaketa abenduaren 12an izan zen. Protesta ekitaldiaren atzerapenaren arrazoiak argitu zituzten, besteak beste.

Herriko Plazan egin zuten protesta ekitaldia zenbait herritarrek, Dominika Leon zuberotarraren heriotza salatzen. Haren senar Eric Clemon tek bihar-munean onartu zuen poliziaren aurrean berak hil zuela, ustez emakumea gaixo zelako eta haren sufrimendua buka zedin.

Hain justu ere, horren gainera hausnarketa egin zuten aste-

leheneko bilkuran emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako Arrasateko taldekoek.

BESTE TIPOLOGIA MOTA BAT

Lehenik eta behin, gogorarazi zuten autopsiaren arabera 14-15 labankada eman zizkiola senarrak emazteari; baina hala ere, zenbait komunikabidek heriotza hori ez zutela emakumeen kontrako indarkeria moduan landu, eutanasia izango balitz moduan landu zutela baizik. Hala, etorkizunean halako gehiago gerta litezkeela-eta, kontu handiarekin jokatu beharko dutela esan zuten, tipologia desberdina izan arren, halakoak ere emakumeen kontrako indarkeria izan daitezkeelako.



U.M.

Asteleheneko protesta ekitaldian emakumeak baino gizonezko gehiago izan zen.

LABUR

Enrike Letona preso ohia berriro dabilza epaitzen, orain dela 20 urteko akusazioekin

Iaz askatu zuten Enrike Letona; 30 urteko kartzela-zigorra zuen eta kartzelan 16 urte egin eta gero askatu zuten. Orain, berriz, Auzitegi Nazionalak lau sumario zabaldu dizkio. Letonak esan digunez, sumario guztiak 1981ekoak dira eta leporatzen dizkioten ekintzak 1979 eta 1983 bitartekoak. 20 urte baino gehiago pasatu dira ordutik hona; beraz, delituek preskribatuta beharko lukete. Esan digunez, baina, jaso berri duen sumario horietako baten sententzian esan diote epaia ez dela irmoa; beraz, ezin dela erabaki kartzelaratuko duten edo ez. Letonak ez du uste hala egingo dutenik, baina bada-epada aurkeztu du helegitea. Eta Madrilera joaten segitu behar du.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

KONTRATAK

IRYROK S.L.


ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

KALEINKESTA/ Etxien jarraiketan dozue Gabonetako ohiturak?



MARIAN URIBE
Langillie



IGOR ESPARTZA
Langillie



ESTER BALANTZATEGI
Langillie



ANDONI MAGUNAZELAIA
Langillie



GAIZKA ARANEGI
Langillie



FRANCES ROSA
Langillie

Bai, gehixenbat umiengaittik, ilusiñue mantentziarren. Olentzero etortzen da gure etxera, eta alabie Gokobalun dabillenez, kantuen urtetan dau. Geu be base-rittar janzen gare.

Larrei ez, Gabonak oporretan jueteko aprobetxetan dot-eta; azkeneko urtietan egin dot holaxe. Abenduaren 24ien eta 25ien etxien egoten naz, baiñe hortik aurrera...

Abenduaren 24ien Olentzero etortzen da gure etxera, eta afaldu eta gero kantuen ibiltzen gare. Oin dala urte batzuk Internetetik bajau geuen abesti batzun letrak, eta hortxe ibiltzen gare.

Horreik ohitturok alde bate-ira itxite geuken. Oin, umiek diela-eta barrero be erreku-perau biherko dou hola-kuek. Santamasetan fami-lixakuek batzen gare, eta baitte Gabonetan be.

Oingo egunotan familixe bazkarixek eta afarixek egitteko ohitturie daukou, baiñe hortik aurrera... Ez dauket aparteko ohitturarik, eta Gabonetako anbieñte be ez jat askorik gustetan.

Ez daukou Gabonak ospa-ke-tako ohitturarik, ez dou bazkari edo afari berezirik egitten. Pentsetan dou dana saltzeko eta erosteko pre-paraute dauela, eta ez jaku gustetan.

USTEAKUSTE

Amerika

Irabazi dugu. Aimarak, kitxuak, txikitanoak eta guaraniak aurreneko aldiz presidente gara” esan zien Evo Morales Bolivia-ko hautagai indigenak bere jarraitzaileei. Lerro hauek idazterako orduan, Bolivian hauteskundeetako zenbaketak egiten zebiltzan, baina agerian gelditu zen Evo Morales izango zela Boliviako presidentea, inork azpijoko zikinik egiten ez bazuen behintzat.

Ez da gutxi indigena bat presidente bilakatzea. Are gehiago, hasieratik argi eta garbi utzi du gutxien daukaten alde egingo duela, eta ez duela AEBetako gobernuaren inposiziorik onartuko. Oso zailak dira eginkizun horiek, baina saiatzeak merezi du.

Badirudi aspaldian Hego eta Ertamerikako herriak iratzartzen dabiltzala, eta mendeetan izan duten zama gainetik kentzeko ahaleginetan dabiltzala. Horra hor, Kuba, Brasil eta Venezuelako adibideak ere.

Horrez gain, komunikabide-ek duten garrantziaz jabetuta eta ekialdeko lurralde kolpa-tuetan lan egiten duen Al-Jazzera telebista eredu hartuta, Hego eta Ertamerikan ere beste komunikabide independente bat sortu dute.

Urtea bukatzeko albiste onak. Ea 2006a hobeto hasten dugun. Hala bedi.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK DANTZARIAK ZUBIETARA ERAMATEAGATIK Orain dela gutxi, Basati eta Kajoi taberneak Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeetako 110 gaztetxo eraman zituzten Zubieta Realaren entrenamendua ikustera. Ekimen horren helburua zen dantzari gaztetxoek oparixoa egitea. Zer esanik ez, gaztetxoak poz-pez ibili ziren. Autobusean joan-etorria egin, ogitartekoa jan eta jokalariekin egoteko aukera izan zuten. Kontua da zenbait gurasok esan digutela antolatu zutenei eskerrak emateko. Horra, bada.

ASTEKO DATUA

148

ETXEBIZITZA BABES OFIZIALEKOAK, ZERRAJERAN

Osoko bilkurak erabaki du Zerrajera inguruan babes ofizialeko 148 etxebizitza egingo dituztela. Etxebizitza horiek 35 urtetik beherakoei eta 65 urtetik gorakoei alokairuan emateko dira. Caixak bultzatutako ekimenak eztabaida eragin zuen osoko bilkuran.

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



2006 urteari begira

2005 urtea bukatzeko aste-bete falta den honetan, datorren 2006 urteari begira jartzen naiz. Ez dakit zer gertatuko den hurrengo urtean, baina programatutako gauza batzuk jakinak dira.

Horien artean obren kontua dago. Azken urte hau autobidea Arrasatera heldu den urtea izanik eta horri jarraituz zubi berriak eraikitzen ikusiko ditugu. Horretan ere badaude jada martxan dabilzan hainbat gauza, lanean jarraituko edo amaituko dituztenak: kultura etxe berria, Garibaiko aparkalekuak, Epeleko sarre-rako bide zabaldia eta abar.

Beste alde batetik betiko biziak ere jarraituko du, agian aurtengo nobedade gisa tabako gutxiagorekin. Hor eongo dira Reala, Athletica eta beste futbol talde guztiak, eta astelehenetako berba eta komentarioak, batak irabazi edo besteak galdu egin dutela. Agian bakoitzaren asmoak

eta ilusioak hurrengo urterako beste batzuk izan daitezke. Beti ere aro berri bat hasera-koan hoberantz joateko esperantza dugu, nahiz eta aurrekoa ere ona izan.

Ildo horretatik, 2006 urteari ongietorria itxaropenez betea ematen diot. Orain dela 2 urte

baino giro lasaiago batean gaude bakea lortu ahal izateko. Esperantza puntu bat ere badut aurtengoa bake urtea izateko. Jende askok irabaziko luke-eta hori gertatuz gero: afektatuek, familieek eta orokorrean

gehienok.

Egun hauetan egunkaritan eta telebistetan pasatako urteari ematen dieten errepa-soa ikusten gabiltza. 2006 urte bukaeran berriz ere egoera honetan izan dezagula urtea-zen zapore on bat, bai bakea-ren lorpenarengatik eta norberaren gauzatxoetan ere urte irribarretsuari agur egin diezaiozun. Baina horretarako bizi egin behar dugu lehenago. Urte berri ona izan guztiok.

“Beti ere aro berri bat hasterakoan hoberantz joateko esperantza dugu, nahiz eta aurrekoa ere ona izan”

IKER BARANDIARAN

Arrasate Press
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Kepa Martelo
ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Auritzane Gainzarain
Añe Berezibar
Iratxe Bengoa
ARGAZKIAK
Mikel Lupiáñez

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala

ELKARRIZKETA

URTZI AMIANO ETA GARI IBARZABAL /KIROL ELKARTEKO ARDURADUNAK

“Arizmendi ikastolak kirolaren alde egindako apustua erakusten du sariak”

XABIER URTZELAI

Diputazioak saria eman-
go dio Arizmendi ikas-
tolari, kirola sustatze-
agatik. Gaur egingo
dute sari banaketaren ekital-
dia, eta errekonozimendu
horren ganean berba egiteko
elkartu gara Urtzi Amianorekin
eta Gari Ibarzabalekin.

Zer esan gura du sari horrek?

Arizmendi ikastolak kirola-
ren eta aisialdiaren aldeko apus-
tu nabarmena egin duela, eta
ikastola osatzen dugun agente
guztiak inplikatu: ikasle, irakas-
le, guraso, ikasle ohi... Eta lan
horren errekonozimendua da
gaur emango diguten saria.

**Azaliezazue Arizmendi-
ko Kirol Elkarteak egin duen
ibilbidea.**

Arizmendi Ikastola Leintz
bailaran zeuden lau ikastola
batuta sortu zen, eta gu heldu
garen lekura iristeko ezinbes-
tekoa izan da orain dela urte
batzuk kirola eta aisialdia bul-
tatzeko egin zuten ahalegina.
Arizmendik, gero, Eskola Kirol-
laren egituraren egiten den lana-
ri jarraipena emateko Kirol
Elkartea errealitate berrira ego-
kitu du, gaur egunera.

**Zeintzuk dira ikastetxean
kirola sustatzearren helbu-
ruak?**

Arizmendi Kirol Elkartearen
helburuak hiru zutabetan oina-
rritzen dira: txikitatik gure ikas-
leengan kirol ohitura osasun-
tsuak sortzea, gure ikasleei kirol
aukera zabalena eskaintzea eta
kirol praktika urtetan zehar aha-
lik eta emankorrena izatea, hain
zuzen ere.

**Zertan zabiltzate orain mur-
gilduta?**

Gure kirol sailak antolatze-
ko orduan, gure herrietan kirol
eskaintzan ditugun hutsuneak
betetzea izan da erronka nagusienetako bat. Alde horretatik,
igeriketarekin, areto futbolarekin,
squasharekin eta futbolarekin



X.U.

*“Txikitatik gure
ikasleengan kirol
ohitura osasuntsuak
sortzea da
helburuetako bat”*

kin gabilta orain buru-belarri.
Squash saila hedapen txikiko
kirolei tokia eman guran sortu
genuen, eta futbolearen ahalegin
berezia egin dugu nesken futbo-
la egituratzeko; iaz kadete mailan
bi talde sortu genituen eta
aurten infantiletan beste bi talde
sortu ditugu.

**Horrekin batera, kirol
elkarrekin ere harreman
estua izan beharko duzue.**

Derrigorrez. Futbolearen, adibidez,
gure asmo nagusia da bailarako
futbol elkartearen artean elkarlana
bultzatzea. Horrekin batera,
baina, eskubaloiko, sas-

*“Herrietako kirol
eskaintzan ditugun
hutsuneak betetzea
izan da erronka
handienetako bat”*

kibaloiko eta gainontzeko taldeekin
dugu harremana, egiten dituzten
deialdi eta ekintza berezietan
partaidetza zuzena izaten dugu-
eta.

**Heziketa gaztetan eta formazioa
nagusitan.**

Haur Hezkuntzako umeekin
hasten gara lanean, eta ikastolak
Lanbide Heziketan formazio pro-
pioa eskaintzen du, TAFYD o
zikloa. Hala, Kirol Elkartearen
heziketa fisikoko eta TAFYDeko
irakasleek ere hartzen dute parte,
bereziki monitoreen formazioan.
Azken baten, hori da gure kirol
egituraren harrobia.

Mondrak Hondarribian
jokatuko du urteko azkena

X.U.

**Bihar lehiatuko dira Hondarri-
bia eta Mondra, urteko azken
jardunaldian. Arrasatearrek
Gabonetan lan egin behar
izateari etekina atera gura
diote; hamalagarren postuan
dagoen taldea izango dute zain.**

Lehenengo hamabost norgehiago-
ketan hamar puntu eskuratuta
erabaki zuten Hondarribiako
zuzendaritzakoek entrenatzailea
aldatzea, eta entrenatzaile berri-
rekin badirudi Mondraren bihar-
ko kontrarioak hobera egin due-
la, azkeneko bi partiduetan lau

puntu erdietsi ditu-eta.

Mondrari dagokionez, Gordo-
bilen mutilek azkenaldian kan-
poko partiduetan erakutsitako
itxura onarekin jarraitu gura dute.
Hala, badirudi Mondrako entre-
natzaileak jokalaria guztiak izan-
go dituela eskura. Zoritxarrez
Aitor Alartziak luzerako izango du,
baina albiste ona da aspaldiko par-
tez Gotzon Urtzelai taldean egote-
ko moduan dagoela, lesioa atzean
utzita. 30 puntu ditu Mondrak, eta
bosgarren postuan dago. 33 pun-
turekin izan liteke sailkapenean
gora jauzi egitea, urte berriari ilu-
sioz eta indarrez ekiteko lagun-
garri izango dena.

Uruguaitik bizipen ederrarekin
eta bi garaipenekin itzuli dira

X.U.

**Joan den astean iritsi ziren
Arrasateko errugbiko betera-
noak Arrasatera, Uruguai
atzean utzita. Hamargarren
urteurrena ospatzeko modu
ezin hobea izan da, eta kirol
arloan maila eman dute.**

Izan ere, Uruguain ahazteko gai-
tza izango den esperientzia bizi
izan dute Herensugeak taldekoek,
baina ez ahaztu errugbian joko-
tzera joan zirela hara, eta horretan
ere ondo baino hobeto moldatu
dira Arrasatekoak. Abenduaren
7an, Uruguaiako talde ezaguneta-
koa den Montevideoo Criquet Club
taldearen kontra neurtu zituzten

indarrak. Talde hori Hego Afrikara
joateko prestatzen dabil; hori dela-
eta, erritmo handiko norgehiago-
ka izan zen. Hala, Arrasatekoek
lau entsegu egin zituzten eta uru-
guaiarrek, berriz, bi.

Bigarren norgehiagoka abendu-
aren 9an jokatu zuten, Punta del
Esten, Lobos Marinos Rugby Club
taldearen kontra. Norgehiagoka
hura parekatuagoa izan zen, bai-
na orduan ere arrasatearrak nagusitu
ziren, kontrarioak baino entsegu
bat gehiago eginda (2-3). *Viven!*
liburua edo filma ikusi duzenok
jakin ezazue argazkien erdian
dagoen laguna dela hango errug-
bi federazioko presidentea, 1973an
Andeetako istripu ezagunetik bizi-
rik atera zenetako bat.



Herensugeak eta Lobos Marinos Rugby Club taldeko jokalaria.

ZUBIZARRETA
LANTEGIAKGipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Pando
ErrotuloakGipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erlebedun hizkiak

%30

Happy
New Year



[FISCHER]
Pack Ski-CX4.4FR+FS10

LEHEN:

ORAIN: ~~345 €~~

239,95 €

SPORTLAND ARRASATE Garibai Etorbidea, 2-6
www.forumsport.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Iragarki honetan ageri diren prezioak eta sustapenak utzarriaren 8tik berrio dute.

BOTEPRONTUEN

Zuhaitz Arantzadi

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

XABIER URTZELAI

Bost urte die Zuhaitzek eta Andonik Ekin zabaldu euela, eta oin sei lagun dabitz lanien. Laster barritasun gehixaukin etorriko die. Gustora dauz Aretxabaletan; Zuhaitzek esan dusku honezkero Zumarragan beste jente ezaguketan dau Aretxabaletan.

Bata Realeko masajistie eta bestie G-IIra igoteko preparentan. Badauketzue lanerako denporarik?

Bai, badaukou bai. Horreik die Andonik eta bixok daukoun afiziñuek, eta egixe da denpora luzie eskaketan dauen afiziñuek diela. Andoni hasi da G-IIra jueteko entrenetan, eta neu aste bukaeretan ibiltzen naz Realeko ohorezko jubentilekin. Eurekin kanpora jueteko denporie biher da, baiñe egixe da neure saltsan ibiltzen nazela.

Badau aldie Realeko gaztiek lan egittien eta hamengo bezeruekin lan egittien artien?

Bai, haundixe. Ekin-en ahaleginketan gare pertsonie egunero ko bizitza egiteko ondo egoten, min barik. Realeko gaztiek, barriz, ondo baiño hobeto egon biher daue, konpetiziñuen dabitz-eta.

Ez neuken asmorik Lehenengo Maillako taldien gainien galdeketako.

Ez dutzut sinisketan. (Barre) Kritika konstruktibue egittie baiño errexau da kritika destruktibue egittie. Balorau egin biher da gipuzkoarrekin osatuteko taldie daukoule, eta oin dala urte batzuk ez euen holakorik. Baiñe zelaixen lider bat falta dala uste dot, karakterra falta dau taldiek.

Lan kontuei heldute, laster barrikuntzak egingo dozue.

Bai, segiduen hasiko gare horretan. Lokala txiki geratu jaku, eta horrekin batera spa zerbitzue ipiñiko dou martxan; urte hasieran hasiko dou horreik lanok.

Eta ze da spa zerbitzue?

Zelanbait esateko, igerileku txiki moduko bat ipiñiko dou, lau zati-ttan banatute. Eta zati bakotxien, uran presiñuen laguntzakin gau-



X.U.

"Ekin haundiketako eta spa zerbitzue jarteko obrak egingo dou laster, urtien hasieran"

za diferentiek landu ahal izengo dou: hankak, gerrixe, bizkerra... Ikusten geuen holako zeozer falta jakula, terapeutikue eta relajantie dana, eta horretan animau gare.

Oingo asteen egin dauen hotza ez da izengo ba gorputzendako onena.

Geu ointxe gabitz tenporada altuen, neguen. Hotza ez da muskuluendako bape ona, kontraidu egitten die-eta. Eta muskuluendako hotza txarra bada, atara kontuek hazurrendako, batez be umedadie badau. Holakuetan errexau da lesiñuek egittie.

Eta hori gutxi balitz, ointxe sartu gare eski denboraldixen.

Hor be komeni da gauza batzuk

"Igerileku txiki moduko bat ipiñiko dou, terapia egin eta relajaziñue be landu ahal izeteko"

kontuen eukittie. Hasteko, eskixe eta snowa deporte agresibuek die. Fisikoki ez dau eskaketan ondo egotie, aldapa beheran gatozelako, baiñe pisu haundixe eukiz gero, belaunek, orkatillek... mordue sufriduten daue; eta saltuetan... Gaiñera, hori kirolai urteko sasoi baten egitten da, neguen, eta lehenau ezin izen gare entrenau. Komeni da lehenengo egunetan poliki hastie.

Beste gomendixorik?

Neu ez naz aproposena gomendixuek emuteko, baiñe miñe hartzen dauena profesional batengana juen daille. Lesiño txiki batekin bueltaka ibilliz gero, akaso gauza serixuau egingo dau.

NIREBIDAIAHURA / Maria Algaba

Saharara / 2005eko abenduan

Fronte Polisarioak antolatutako bidaiari esker, Arrasateko Nubi Elkarteko hainbat lagun izan dira abenduko lehenengo asteen Saharan. Horieta bi lagun dira Maria Algaba eta Edurne Juldain. Eta datozen bi kapituluetan Saharara egindako bidaiaren gainean egingo dugu berba, baina bi ikuspuntu hartuta. Izan ere, Maria Sudairan izan zen eta Agurne Smaran.

Orain dela pare bat urte Mariak eta Agurnek ume sahararrak hartu zituzten etxean, uda igarotzeko, eta ume horiek bisitatzera joan dira orain Saharara. Horrekin batera, baina, beste helburu bat ere eraman zuten: "Orain arte bisitan izan gara han, baina ikusi dugu badela garaia eurei laguntzeko beste pauso bat emateko. Hala, hara iritsitakoan hango agintariekin izan ginen behar handiena non duten ikusteko. Kontua da beharrak baino ez dituztela, eta orain guk erabaki beharko dugu zein proiektu abiarazi".


Mohamed gaztea ikustera joan zen Maria, eta baita haren familiakoak ere: "Eta zelakoak egin behar izan genituen ospitalea edo eskola ikustera joan behar genuela konbentzitzeko.

Gurekin egon gura zuten, baina guk beste helburu batzuk genituen, ezin ginen denbora guztian eurekin egon". Alde horretatik, nahiz eta Saharan behin baino gehiagotan egon, bidaiak bakoitza abentura izaten da, indarberrituta itzultzeko balio duena: "Hango biztanleak esker onekoak dira, eta umeak irribarrez egoten dira beti. Orain, egunean 26 gradu inguru dituzte, baina gauean 0 graduko temperatura egiten du. Horrekin batera, egunak askorako ematen du han, ez dute-eta telebistarik". Medikamentuen beharra ikusi du Mariak: "Begiatarako kolirioa, gazura, hezurretako minei aurre egiteko medikamentuak, antibiotikoak... Horrekin batera, diabete arazoak dituzte han". Horieta dira Mariak ikusitako beharretako batzuk, eta Agurnek behar gehiago batuko ditu zerrendara. Hurrengoan.



"Zein behar duten ikustera joan gara, eta denetik behar dute"

XABIER URTZELAI



Hango ospitalea bisitatzeko aprobetxatu zuen Mariak.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Urbarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE

Industria
hornidurak

Sán Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



ibarreko ume eta gaztetxo asko Txikilandia noiz heldu irrikan egoten dira.

TXATXILIPURDI

ASIALDIA/ Urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean Txikilandia Musakolako kiroldegian

Perkusio ikuskizuna, Zirku txokoa eta sorpresa ugari Txikilandian

KER BARANDIARAN

Urtarrileko lehenengo egunetan Txikilandia Gabonetako parke erraldoia egingo du Txatxilipurdik. Ohiko jolas, puzgarri eta bestelakoez gain, zozketak, ikuskizunak eta beste ehunka gauza antolatu dituzte gaztetxoenen gozamenarako.

Urtarrileko lehenengo egunetan Txikilandia Gabonetako parke erraldoiaren beste edizio bat egingo dute Musakolako kiroldegian. Hilaren 2an, 3an eta 4an goizez eta arratsalde zabalik egongo da; hilaren 5ean, berriz, goizez bakarrik. Are gehiago, urtarrilaren 4an Txikilandiako zerbitzu guztiez gain, igerilekua ere zabalduko dute hainbat jolas eta puzgarrirekin. Hortaz, egun horretan joateko asmoa dutenei bainujantzia eramateko gogoraz gura diete antolatzaileek.

Txikilandiaren antolatzaile den Txatxilipurdi elkartetik aditzera eman digute parkearen salneurria ez dela aldatu, joan den urteko bera dela: 2an, 3an eta 4an, 4,5 euro; eta 5ean, 3,2 euro (egun erdi delako). Horrez gain, egun guztietarako bonoak ere jarri dituzte salgai 12 eurotan. Bestalde, aditzera eman digute 0 eta 2 urte arteko umeek eta helduek ez dutela sarrerarik ordaindu behar.

KULTURARTEKOTASUNA LANDUKO DUTE Txatxilipurdiko lagunak Leintz Ibarreko gobernu kanpoko hainbat erakunderekin harre-

manetan jarri dira, eta elkarlanean kulturartekotasuna lantzeko tailerrak antolatu dituzte. Honako erakundeek lagundu dute: Atxorrotz, Serso, Hiruatx, Mugarik Gabeko Ingeniariak, Harreman eta AMS, hain zuzen ere. Tailer eta jokoen bidez, ume eta gaztetxoek ezagutu ahal izango dituzte beste herrialde batzuetako kultura, ohitura eta bizi baldintzak.

AFRIKAKO DANTZAK, OPARIAK... Txikilandiako egitarauan hainbat sorpresa egongo direla jakin badakigu. Horien artean, hainbat ikuskizun antolatu dituzte. Besteak beste, egunero karaokeak egingo dituzte, eta zehaztu bako egun baten perkusio eta Afrikako dantza ikuskizuna egingo du talde batek.

Egunero kantxa handian boloa egingo dute, monopatinak zozkatuko dituzte eta opari ugari banatuko dituzte.

ZIRKU TXOKOA, BERRITASUNEN ARTEAN 2006an Txikilandiak izango duen beste berritasun bat da Zirku txokoa. Antoñan jarriko dute, gaztetxo gunean, eta han, mono-

zikloak, hankapaluak, mazoak, Txinako makilak, diabolak eta bestelakoak ibiltzen irakatsiko diete bertaratutakoei.

Gaztetxo gunean bestelako aukerak ere izango dira, han bertan, Antoñan, *goming*-ean aritzeko aukera ere izango da-eta. Eta saskibaloian jokatzeko makina erraldoiak jarriko dituzte.

Ohiko tailer eta puzgarri erraldoiak, Ipuinen txokoa eta ludoteka ere han izango dira, txiki- kien eta gaztetxo gozamenarako, jakina.

LANTALDE ERRALDOIA Parke erraldoian denetatik egon dadin eta ume, gaztetxo eta helduei zerbitzu txukuna eskaintzeko, urrian hasi ziren lanean Txatxilipurdin. Parkea zabalik egongo den egunetan, berriz, 35 begirale eta koordinatzaileak ibiliko dira buru-belarri.

Iaz bezala, Gurasoen txokoa ere atonduko dute, eta han, kafea eta pastak doan emango dituzte. Edozein ezbehar gertatuz gero ahalik eta arreta egokiena emateko, anbulantzia egongo da kiroldegi kanpoan parkeak iraungo duen bost egunetan.

Ume eta gaztetxoek beste kultura batzuk ezagutzeko aukera izango dute Txikilandian

Txikitxoek bi gune izango dituzte aurten eta han tailerrak, puzgarriak eta beste

Gospela, afroamerikarren musika erlijiosoa, Amaian

I.B.

Gaur, egubakoitza, AEBetako The Black Heritage Choir gospel taldeak kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian. 20:00etan izango da, eta The Sound of Gospel ikuskizuna egingo dute.

Ez dakiguna da honezkero sarre- rari-rik geldituko den, ikuskizunak izugarriko harrera izan delako, eta denbora laburrean sarrera morderoa saldu dituztelako.

Eta ez da gutxiagorako; izan ere, aspaldian ez dute halako ospea duten talde atzerritarrek Amaia Udal Antzokian ikuskizunik egin, eta ez da ohikoa gospela ibarreko antzokietan entzutea.

GOSPELARI OMENALDIA

The Black Heritage Choir da AEBetako afroamerikarren arteko talde ezagunenetakoa. 1994an sortu zuten diskoak kaleratu zituzte: *I've been touched* (Lecresia Campbell abeslariarekin batera) eta *Draw me nearer* eta *Swing low*, besteak beste. Talde horren errepertorioan, hain zuzen, gospel klasikotik

gaur egunekora arteko errepasoa egingo dute. Hain zuzen ere, eresiak, gospel tradizionala eta espirituala abestuko dute. Euskal Herrian ikuskizun berria estreinatuko dute. Sound of Gospel izena du, eta gospel musikari omenaldia egiten diote.

Taldearen zuzendaria Aita Jerry Smith da, eta sari ugari eskuratu dituzte orain arte egin- dako ibilbidearengatik.

ELIZAREN GARRANTZIA

Dioteenez, gospela landatzeetan sortu zuten gizonezko eta emakumezko esklaboek, euren jatorrizko musika Ingalaterrako XVIII. mendeko eresiekin batu zutenean. Harrotasunez, sentimenduz eta jatorriak aldarrikatuz abesten den musika da, eta hala jarraitu du gaur egunera arte.

Gospelak lengoia eta kode propioa dauzka, baita erritual berezia ere. Horrez gain, AEBetako eliza batzuei esker luzaroan iraun du musika estilo eta ia bizi- modu mota ere den gospelak. AEBetako zona batzuetan fenomeno soziala ere bada, eta azken urteotan jazza, bluesa, countrya eta hip-hopa ere barneratu ditu.

Izugarrizko harrera ona izan du gospel emanaldiak, eta baliteke sarrerak agortuta egotea

The Black Heritage Choir taldeak gospel tradizionaletik gaur egunekora salto egiten du



ARRASATE PRESS

Adituek diotenez, gospel taldeetan ahots guztiak dute protagonismo bera.

Durangon salgai!

Patologia orokorra. Alai orokorra, amas aparatua eta zirkulazio-aparatua Edurne Ugarte 52,50 €	Elementuen taula periodikoa (14 urteko aurrera) - Eskuko taula (21x29,7 cm) 4 € - Horma-irudia (90x50 cm) 20 €	Hitzmix (12 urteko aurrera) CD-ROMa 29,95 €
ELKIDEEN Elementuak Pablo Angulo Martín 36,50 €	Merkatu eta globalizazioa José Luis Sempayo Iturrizalea Eduardo Monasterio 12 €	Urpako erpinua (6-12 urte) CD-ROMa 27,45 €

liburuak • hiztegiak • aldizkariak • multimedia CD-ROMak • gais-entzunezkoak • katalogoa

ELHUYAR Fundazioa
Zelai Haundi, 3 • Osinalde ind. • 20170 Usurbil • tel.: 943 36 30 40
elhuyar@elhuyar.com • www.elhuyar.org/denda

Bangladeshko Monir grabatu egileak erakusketa du Arregin

I.B.

Erakusketa bitxia eraman du Iñigo Arregik markoztatze dendara. Hilero jartzen ditu erakusketak, baina honakoan Espainiako Estatuan bizi den grabatu egile ezagunenaren lanak jarri ditu ikusgai.

Bangladeshkoa da Monir grabatu egilea, eta 1969ra arte estanziazioak egiten ibili zen. Urte hartan, nazioarteko kultura elkartruke baten bidez beka eskuratu zuen eta Espainiako Estatura etorri zen. "Espainiako margolariak oso gustuko ditut, horietako asko miretsi egin ditut. Interesgarria iruditu zitzaidan hona etortzea, eta asko ikasi dut", azaldu zigun Monirrek erakusketaren aurkezpenean.

Hortaz, Madrilen grabatua egiten hasi zen buru-belarri eta maila oso handia lortu zuen. Hala, 1997an Espainiako grabatu egile onenaren saria jaso zuen. Dagoeneko nazioartean hainbat erakusketa jarri ditu, eta munduko hiri askotako museoetan behin betiko erakusketak ditu. Bere lanek ekialdeko eta mendebaldeko tendentziak batzen dituzte.

"Madrilen bizi izaten 36 bat urte daramadan arren, ekialdeko kutsua daukat oraindik. Ekialdean artelanak oso koloretsuak dira eta argitasun handia dute. Hala ere, nik argi dut nire lanak edozein direla, berdin da nongoa den edo non bizi den".

36 URTEOTAKO AUKERAKETA

Monirrek azken 36 urteotan egin dako lanen erakusgarri den bilduma jarri du Arregi markoztatze dendan. Arrasaten erakusketa nolatan jarri duen galdetuta, honako hau erantzun zigun: "Urtero, Zaragozan, grabatuaren gaineko tailerra egiten dut, eta han Iñigo Arregi ikasle izan nuen. Asko ikasten dut ikasleen bitartez, baita Arregirekin ere. Arrasaten erakusketa jartzeko eskatu zidan".

Monirrek ez ditu grabatuak oso garesti saltzen, eta kexu da artelan batzuek duten prezioarekin: "Artearen munduan ospea eta dirua dago, zentzugabekeria da. Barre egiten diet nik lan batzuen salneurriari. Nork esan du garestiago saltzen duten lana hobea dela? Gurago dut nire lanak erdi mailako klaseko lagunek eskuratu ahal izatea".



70 bat marrazki Txatxilipurdiren Gabonetako Marrazki Lehiaketan

Joan den egubakoitzean egin zuten ludoteketako jaiak Santa Marinan, eta han banatu zituzten Gabonetako Marrazki Lehiaketako sariak. Honako hauek izan ziren irabazleak: Hugo Teruel, Sara Fernandez eta Nerea Gartzia, Santa Marinatik; eta Vera Garmendia, Andoni Lasaga eta Miren Arexolaleiba, Okendotik. Aurten 70 lan aurkeztu dituzte. /ARGAZKIA: XABIER URTZELAI.


Luis Javier Arrietak margolan erakusketa jarri du Harresi aretoan

I.B.

Luis Javier Arrietak urte asko daramatza olioak margotzen. Honako hau Harresi aretoan egiten duen laugarren erakusketa da, eta erretratuak, Arrasateko txokoak eta bestelako paisaiak batu ditu. Guztira 33 lan batu ditu, eta urtarrilaren 6ra arte egongo dira ikusgai.

Portaloia, Herriko Plaza, Verduring Dancing, Gerraren etxea, Kanpatorpea, Udala auzoa... Arrasateko txoko kuttunek leku berezia daukate Arrietaren erakusketan. "Aldatu aurretik edo behin aldatu ondoren txoko horiek zelakoak ziren jasotzen saiatu naiz, eta horretarako, batzuetan liburu eta argazki zaharretan behatu behar izan dut", azaldu zigun.

Horrez gain, Arrasateko jende ezagunari egindako erretratuak ere batu ditu: Milagros Keleme, Muxibar baserriko Joxe Bixente, Jose Ramon Arrieta, Juli



Arrietak askotan egiten ditu argazkiak, eta argazkia oinarri hartuta margotzen du.

Garratz, eta beste. Arrasateko kutsu handia daukate azkenaldian Arrietak egin dituen margolanak, horiek batu ditu eta erakusketan. Hala ere, badira bestelako motiboak ere bai: detaileak edo lehenengo planoak, irudi fantastikoak, paisaiak, eta abar.

MARGO TALDEAREN BULTZATZAILE

Azken 11 urteotan dabil buru-belarri margotzen, aisialdia horri ematen dio eta. Bergarako eta Monrerrongo eskoletan ibilia, beste hiru lagunekin batera Arrasateko Margo Taldea abiarazi zuen orain dela urte batzuk.

Madrilen bizi da, eta 1997an Espainiako Estatuako grabatu egile onenaren saria eman zioten

Ekialdeko eta mendebaldeko tendentziak uztartzen ditu grabatuetan



Monir munduan barrena askotan ibili da erakusketak egiten. Asko du kontatzeko.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioaren eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-maila onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70

Goiena.net
Debagoienerako Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4
/arregi
/atai
/azkarate

/joseba
/BZ-sistemas
/gallastegi
/garaia

/gutzieder
/korozabaleta
/multipticas
/vitoria

/ohiak
/okipark
/udalaitz

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com





Gabon zoriontsuak guztioi!!

 **BERANGO**

LOOS
ALTZARI INTEGRALAK

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

Muebles

K **abía**

Altzariak

4 URTE
interes barik

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70



EZETZASMATU



Zeinek eraiki zuen parrokiako organoa?
Arrastoa: joan den mende hasieran eraiki zuten.

'UNA INTERESANTE E INACABADA HISTORIA' LIBURUA

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Salvaje langostinoak
8,99 kiloa (20-30 ale)

8,99 € 1496 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EDURNE AGIRIANOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Edurne!
Galderen erantzun zuzena:
El Huésped del Sevillano zartzuela.

ERRETRATUZHARRA

**San Jose
eskolako ikasle
izan zirenak**

Joan den astelehenean, abenduaren 5ean, Juan Mari Lekuona idazle, itzultzaile eta euskaltzaina hil egin zen. Lekuonak sasoi batean Arrasateko San Jose eskolan ikasi zuen, On Jose Luis Iñarra parrokoaren loba zen-eta. Hain zuzen ere, Juan Mari Lekuona Arrasaten izan zela erakusten duen argazki bat ekarri digu gure irakurle fin batek.

1942an ateratako argazkia da, San Jose eskolan bertan ateratakoa. Gaur egun San Viator *handi* dagoen lekuan zegoen eskola hura.

Ilaren arabera identifikatuko ditugu argazkian agertzen direnak. Hala, beheko ilaran ezkerretik eskumara begiratuta honako hauek azaltzen dira: Eugenio Ormazabal, Pedro Salaberri, Jose Luis Madinabeitia, Inazio Zeziaga, Simon Gartzia, Alberto Ruiz de Azua, Roberto Arana eta Alberto Madinabeitia.

Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara baita ere, honako hauek azaltzen dira: Antonio Jimenez,



Ramon Zabaleta, Inazio Uriona, Valeriano Agirreurreta, Jose Antonio Aperribai, Manolo Maza, Severiano Ruiz de Austri, Felix Barrutia, Karlos Mari Ugalde, Antonio Amozarrain eta Juan Aranburu.

Hirugarren ilaran honako hauek azaltzen dira: Jose Erguin, Felipe

Lasaga, Juan Mari Lekuona bera, Jose Luis Legorburu, Ramon Bilbao, Juan Arregi, Luis Martinez eta Juan Egidazu.


Eta azkenik, laugarren ilaran, ezkerretik eskumara honako hauek azaltzen dira: Mariano Barrena, Jose Urdangarin, Vicente Zubizarreta,

Karmelo Amozarrain, Elias Letona, Santiago Galdos, Angel Dorronsoro eta Jose Luis Berezibar.

Argazkia eta informazioa: Jose Luis Madinabeitia
Urtea: 1942.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

ESKORIATZA

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika
- Instalazio elektrikoak

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekorativo eta Industriala

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

Zure lanak
iragartzeko
lekurik
aproposena

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatzeko sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 23a

406. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Kontsumitzaileen informaziorako Udal Bulegoa itxi egingo dute

MIRARI ALTUBE

Debagoieneko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulego (KIUB) bakarra da Aretxabaletako udaletxean dagoena. Abenduaren 31n, baina, atek itxiko ditu eta Eibarrera joan beharko dute kexak dituzten kontsumitzaile debagoiendarrek.

Martin Garai udaltzain-burua izan da orain arte KIUBeko arduraduna. Batera eta bestera, baina, ezin egon, eta bulegoa uztea erabaki du Udalak. Urtarrilaren 1etik aurrera ez dituzte kontsumitzaileen kexa eta informazio

eskaerak Aretxabaletako bulegoan aseko.

130 KASU URTEAN

Bulegoak 22 urte inguru egin ditu zabalik. "Neure ideia izan zen eta lehenengo urteetan Udaleko beste langile batzuk egon ziren. 1986an hartu nuen nik ardura" dio Martinek.

Urte hauetan guztietan asko aldatu dira kontsumitzaileen ohi-turak eta kexak. Martinen esanetan, ikasten joan dira kontsumitzaileak, eta gero eta kexa gehiago aurkezten dituzte. Gainera, esperientziarekin eskubideen arloan asko aurreratu da eta erreklamazio asko argitu dituz-

te. "Etxebizitzen eta etxetresnen gaineko kexak izaten genituen lehen, baina orain automobil garajeen eta telefono konpainien gainekoak dira nagusi. Denak ez ditugu argitzen gura bezala, baina asko eta asko bai. Kontsumitzaileek eurek ere ondo jakiten dute zein eskubide dituzten". Urtean 130 erreklamazio inguru hartu izan ditu bulegoak, eta informazio eske etorritakoak askoz gehiago izan dira.

POLITIKARIEI ESKAERA

Arrasaten, Bergaran eta Oñatin ere egon ziren garai baten bulegoak. "Arrasatekoak oso ondo funtzionatzen zuen, baina erabaki politiko baten ondorioz badira 10 urte itxi zutela", dio Martinek. "Hori dela eta, arrasatear asko dator gure bulegora".

Debagoiendarrak informazioa eskatzeko eta kexak aurkezteko bulego barik geratuko dira urtarrian. "Politikariei eskatuko nieke KIUBen aldeko apustua egin dezatela. Gainera, uste dut ibarrerako zerbitzua Mankomunitateak eman beharko lukeela, eta hiru laguneko bulego bat nahikoa litzateke. Kontsumitzaileek izugarri eskertzen dute egindako lana eta botoak eskuratzeko zerbitzu bikaina da", dio Martinek. Hala, hasita dituen kasuak biderratu eta argitu egingo ditu datoren urtean Martinek, baina berri-rik ez du hartuko. Hemendik aurrera Eibarrera jo beharko dute ibarreko kontsumitzaileek edo bestela Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaileen harretarako daukan telefonora deitu.



Hainbat elkartetako ordezkariak batu ziren presoen aldeko deia egiteko.

Euskal presoen aldeko deia elkarte eta herritarrei

M.A.

Euskal presoen egoeraren berri eman, Kepa Urrea eta Zuhaitz Errastiren berri, eta eskubideak bermatzeko eta konponbidea sustatzeko deia egin zuen Etxeretek herriko hainbat eragileren babesarekin. Bide batez, abenduaren 30ean egingo duten kontzentrazio-ko gonbita egin zuten.

Espainiako eta Frantziako gobernuek kartzela eta zigor arloetan aurrekoen ildo bera daramatela salatu zuen Etxeretek herriko hainbat eragileren babesarekin. Zigor-erak handitzea, sakabanaketa, isolamendua, gaixo daudenen eskubide murrizketa eta beste horrenbeste zigor jasaten dituztela gogorarazi zuten, eta zera eskatu:

tratu duina; osasun, komunikazio, hizkuntza eta hezkuntza eskubideak; amatasun eta aitatasun eskubideak; eta askatasunerako eta Euskal Herrian bizitzeko eskubidea.

KEPA ETA ZUHAITZEN EGOERAK

Bestalde, herriko presoen berri eman gura izan zuten. Kepa Urrea 1.050 kilometrorra dago Puerto de Santa Marian, eta 24 orduko bidala egin behar dute senide eta lagunak 40 minutuko bisitarako. Zuhaitz Errasti, ostera, Frantziako Poitiersen dago, 575 kilometrorra; hark 27 eguneko gose greba egin zuen udan, eta *mitard* izeneko zigor ziegana dago abenduaren 15a ezker.

Hori horrela, abenduaren 30eko kontzentrazioa deitu zituzten herritarrak. Mitarte kalean izango da, 20:00etan, eta ondoren Abesbatzak *Hator hator* abestuko du.



M.A.

Abenduan itxiko ditu bulegoko atek KIUBeko arduradun Martin Garai.



I etatik aurrera zabalik • pintxo beroak

EXPRESS TABERNA

Zorionak eta urte berri on!

Santa kurtz 16 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 23 43

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 24
FRAILA, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 25
FRAILA, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailera	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAIINGOA
Arrasate

LARRIALDIAK

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati)	943 78 28 00

Ekintza plana egiteko bilera du Tokiko Agendak

M.A.

Tokiko Agenda 21 garatzen jarraitzen du Udalak, eta diagnostikoaren zirriborroa egin ostean, ekintza planarekin buru-belarri sartzeko garaia da: helburuak ezarri eta ekimenak zehaztu. Bilerara egingo dute abenduaren 27an, 19:00etan, udaletxeko ganbaran. Herriarren ekarpenak gura dituzte.

Tokiko Agendaren lehenengo atala bukatu dute Aretxabaletan; hau da, diagnostikoa egitea. Foroa osatu zuten horretarako herritarrekin, eta hainbat bilera egin zituzten. Hiru arlo landu dituzte herriri egindako diagnostiko horretan: ingurumena, soziala eta ekonomikoa. Orain ekintza plana garatzea dagokie, eta, hain zu-

zen, hiru arlo horiei dagozkien helburuak ezarri eta burutzeko ekimenak zehaztu behar dituzte.

HERRITARREN EKARPEN ETA IRITZIAK
Ekintza plana garatzeko hiru lan ildo hauek jarraituko dituzte: lerro estrategikoak egin helburu orokorrekin; programak ezarri helburu zehatzagoekin; eta ekintzak zehaztu helburuak aurrera eramateko. Hori guztia foroaren eta aholkularitzaren laguntzarekin egingo dute. Hala ere, ezinbestekoak dira herritarren ekarpen eta iritziak, herriaren etorkizuna erabakitzen eta zehazten dabiltzalako. Hortaz, aretxabaletar guztiei dago zabalik bilera, nahiz eta orain arteko bileretara herritarrik agertu ez den. Abenduaren 27an, martitzena, 19:00etan, izango da udaletxeko ganbaran.



M.A.

Herriaren etorkizuna zehaztuko duen ekintza plana egiteko herritarren iritzia gura dute.



Otarreen zozketa Udal Euskaltegian

Euskaltegiko ikasle izatea eta Gabonekin zerikusia duen lan-txoa egitea ziren otarreen zozketan parte hartzeko baldintzak. Hala, benetan lan politikak aurkeztu zituzten, eta ikusgai daude Euskaltegian. Eguaztenez hiru otarreak zozketatu zituzten, eta Iñaki San Miguel eta Monse Perez aretxabaletarrak izan ziren saridunak. Hirugarren otarrea lanik dotoreenarendako zen eta bozketa bidez hautatu zuten ikasleek eurek; Olentzero egin zuen lehenengo urratseko taldeak jaso zuen saria. / M.A.

LABUR

Urtarrilaren letik aurrera ezingo da erre Udalaren egoitzetan; ezta udaletxean ere

Tabako produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen legea urtarrilaren lehen sartuko da indarrean. Hori horrela, Udaleko Gizarte Ongizateko batzordeak oharra bidali die langileei, esanaz ezingo dutela erre Udalarenak diren egoitzetan: udal-txea, kirol etxea, liburutegia; zaharren egoitza, kultur etxea eta haren lokalak, musika eskola, ludoteka, Udal Biltegia, erretiratuen etxea, euskaltegia, euskal txokoa, EPA, Galartzako dorretxea, Murubide kaleko lokalak eta gaztelekuak. Edozein zalantza izanez gero, Prebentzio Saileko teknikari Myriam Beltran de Herediarengana jo behar da.

Dorleta
taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel. 943 79 94 15

Karlos

Harakina

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABAleta

Lie

LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABAleta

Only
aretxabaleta

Herriko plaza Aretxabaleta
Tel.: 943 79 09 33

HAIZEA taberna

IOHANAK GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Mitarte z/g • ARETXABAleta Tel.: 943 79 88 60

Izenperen txartel digitalak egingo dituzte Udal Liburutegian

M.A.

Txartel digitalak egiten hasi dira liburutegian, Izenpe txartelak. Internet bidez liburutegiarekin harremanetan jartzeko aukera ematen du txartelak eta aurrerago beste zerbitzu batzuk eskainiko ditu. Doan da eta astelehen, martitzen eta eguen arratsaldeetan egiten dute.


Txartel berriak egiten hasi dira liburutegian, Izenpe txartelak. 16 urtetik gora izatea da eskuratzeko baldintza bakarra, eta gura izanez gero norberak eskatu behar du.

SINADURA DIGITALA

Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek adostutako txartela da Izenpe. Sinadura digitala dauka; hau da, sinadura juridikoaren balioa daukana. Eta txartel irakurgailu baten laguntzarekin Internet bidez tramiteak egingo dituzte erabiltzaileek. Momentuz liburutegiko zerbitzuetarako bakarrik erabil daitezke: kontsultak egin, mailegu epeak luzatu... Aurrerago, baina, administrazioarekin egin beharreko paper kontuetarako ere izango da baliagarria: errenta aitortpenak egin, errentaren gaineko zergak kontsultatu, udaletxean erroldatze datuak eskatu...

TXARTEL IRAKURGAILUA

Txartela eskatzeko baldintza bakarra 16 urtetik gora izatea da. Norberak joan behar du liburutegira eskaera egitera NArekin, hainbat paper sinatu beharko



Olatz Agirrek egiten ditu txartelak eta norbera etorri behar da eskatzera.

direlako. Ondoren etxean jasoko du eskutitza Interneten sartzeko pin eta puk zenbakiekin. Hori jasotakoan, liburutegira joan

*Udal Liburutegian
astelehen, martitzen
eta eguen
arratsaldeetan egingo
dituzte txartelak*

behar du berrito txartela jasotzera. Norbera orduan ere, bestela ez diotelako emango. Txartelarekin batera ordenagailuan programa ezartzeko CDA eta txartel irakurgailua emango dizkioite. Irakurgailua ordenagailura lotzen da USB bidez. Doan da guztia, eta txartelak hiru urterako balio du.

Joan zen astean jarri zuten abian ekimena Aretxabaletako Udal Liburutegian, eta Olatz Agirre dago txartelak egiten astelehen, martitzen eta eguenetan, 17:00etatik 20:00etara.



Gabonetako karate jaialdian bost herritar

Gabonetako karate jaialdia egin zuten joan zen zapatuan Donostiako Manteoko kiroldegian, eta aretxabaletarrak hurreratu ziren. Infantilen mailan Odei Vazquezek jardun zuen; alebirekin Axel Lizarantzuk; eta benjaminekin Oxel Vazquezek, Beñat Martinek eta Gorka Gonzalok. Odei hirugarren geratu zen kumite sailean, Oxel seigarren eta Gorka zortzigarren. /M.A.

LABUR

Peña Zubi txapelketa jokatuko dute abenduaren 26a eta urtarrilaren 5a bitartean

Abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren 5a bitartean Peña Zubi txapelketa jokatuko dute Ibarra futbol zelaian, 15:00etan hasita. Hiru talde egingo dituzte: 93an eta 94an jaiotakoak, 95ekoak eta 96koak. Atzo bukatu zen izena emateko epea, eta aretxabaletarrez gain ibarreko hainbat mutiko hurreratuko dira gure futbol zelaira. 20 urtetik gora dituen txapelketa da Peña Zubi, eta gaur egungo jokalar askoren lehenengo txapelketa izan zen. Horregatik, entrenatzaile bat baino gehiago hurreratuko da egun horietan partiduak ikustera, etorkizuneko futbol jokalaririk hautatzeko asmoarekin.

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Mortin
erloju-denda

*Bere bezeroen
zerbitzura*

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETAKA

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETAKA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAKA
Tel.: 943 79 01 28



ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKA

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETAKA
Tel. 943 79 29 26

ATREBENTZIAEZPADA/ Zeiñek erueten dITU oparixek zuen etxera? Zer eskatu dutzezu?



JUNE GASTAÑAGA
5 urte




JULEN IBABE
6 urte



MALEN BASABE
2 urte



IÑIGO MONGELOS
8 urte



MAITE ELORZA
9 urte



ADRIAN AGINAGALDE
10 urte

Olentzero etorten jaku, eta txakurre eskatu dutzet ekarteko. Baiñe ez da benetak txakurre: ibilli egitten da eta etxetxo bat dauko. Eskutitze idatzitte dauket eta eskure emungo dutzet.

Gure etxien Erregiek eta amamanien, Donostian, Olentzerok ekarten dust. Ez dutziet eskutitzik idazten eta opari berezirik eskatu be ez, ekarten daue-nakin konforme.


Pirritx eta Porrotx pailla-zuen *Patata patata* bideue eskatu dutzet Olentzerori, baiñe ondiokan ez dutzet idatzi eskutitze. Pausokara be etorriko jaku Olentzero oparixekin.

Gure etxera Erregiek etorten die, eta eurek ekarriko dustie oparixek. Eskutitze idatziko dutziet, baiñe ez dutziet ezer eskaketan; ekarten dustiena ekarri daitela, zeozer izengo da eta.

Hirurek ekarten dustie oparixek: Olentzerok, Bizar Zurik eta Erregiek, bakoitxak etxe baten. Baby Bornendako kunie eta panpinendako medikue eskatu dutziet.

Olentzerok eta Erregiek, bixek ekarten dustie oparixek. Eskutitzik ez dutziet idatzi, baiñe Olentzerori disko bat eta erlojue eskatu dutzet. Erregiei, ostera, bapez, ekarten dustiena.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK FUTBOL ZELAIKO BELARRA Ibarra futbol zelaiaren belar artifiziala daukagu. Orain dela 12 urte inguru jarri zuten eta zenbat partidu jokatu zituzten ordutik hona! Ondorioz, erabat gastatuta dago belarra Ibarra eta mutikoen ezin dute gustura jokat. Lesioen errua, hein batean behintzat, zelaiarena da hainbat entrenatzaileen esanetan. Ea laster aldatzen duten. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Galartzako Santa Luzia eliza inauguratuta



Maiatza eta uztaila bitartean konpondu arren Santa Luzia egunera arte itxaron zuten Galartzako eliza inauguratzeko. Barruko alde txukundu zuten, hormak berdindu eta margotu, eta elizpean egurra bistarazi eta burdinazko ate bi jarri zituzten. 33 mila euroko aurrekontua izan zuen.

ASTEKODATUA

100

URTE BETEKO DITU GREGORIA LARRUZEAK

Aretxabaletako emakume zaharrenak, Gregoria Larruzea Basarasek, 100 urte beteko ditu bihar, Gabon eguna. Udalak eta Aldundiak omenalditxo egin diote gaur eguerdian.

BESTEKEKESANA

“ Ez daukat beste inolako kezarik ikastetxeari dagokionean, ederto doa guztia eta Martin erabat integratuta dago. Baina garraioari dagokionean ezin dut gehiago, ez dut onartzen aitzakia gehiago. Gure eskubidea da ikastetxera doan autobusak igogailua izatea semea sartu ahal izateko. Martin ikastetxera etorri zenean, orain dela hiru urte, igogailudun autobusa ekarriko zutela egin zidaten zin. Baina sekula ez zuten bete esandakoa, batean gidariari igogailua martxan jartzen duen makinaren giltza ahaztu zitzaioela, bestean hondatuta zegoela... Egunean aitzakia bat asmatzen ziguten eta sekula ez genuen erabili ahal izan. Ikastetxerak, bestalde, dio euren eskuetan dagoen guztia egiten dutela.

MIGUEL ANGEL PEREZ
‘El Diario Vasco’/05-12-17

HERRITARRENBERBAK/ M.J. Aretxaga



Olentzero maittia...

Olentzero maittia, Ezustekorik ez badau behintzet bixer illunkaran gure herritik pasauko zara. Horregatik neuk be neure eskutitze eruengo dutzut; eskatu egin biher da jaso gure bada eta.

Gureko nauke gure herri honi bultzadaxo bat emutie aretxabaletar danon artien.

Gureko nauke gurasuek seme-alabendako antolaketan dien ekintzetan gero eta gehixau inplikatie: buruhandixek, ‘Olentzero...’

Gureko nauke gaztiek eskaketan dauien trukien emuten hastie: lokalak lortu dauienak kontzertuek emutie, jai batzordietan parte hartzie...

Gureko nauke jubilauek aktibuek izetie eta daukien denporie Basotxetik kanpora zeozer egitteko erabiltzie.

Gureko nauke komertziuek herritarrek eurenganatzie imajinaziñue erabillitue; merkatal gune haundixek kalte egitten daue, egixe da, baiñe egizue zeozer zeueik be...

Gureko nauke tabernarixek herriko jaixek giroketan ahalegintxo bat egittie beti negarrez egon biherrien.

Gureko nauke herritarrok herrixen aldeko apustue egittie *iñor ez da egoten aste bukaeratan* eta antzekuek entzun biherrien.

Eta gureko nauke herritarrei ulertaratzie Udala geure zerbitzura dauela eta eskatu egin biher jakola kontuek, baiñe ez garela Udalari begire bizi biher; izen gaittezen geu jaun eta jabe.

Gustetan jat Gazte Ekimenekuek hartu dauien jokarie: edozein egunetan herrixe giroketie iñoi begire egon barik. Eta gustetan jat herriko hainbat koadrillek hartu dauien jokarie: jaixek hobeketako egin dauien ahalegiñe. Has gaittezen geu herri hau altzetan eta jarraituko duskue atzetik datozenek.

Olentzero maittia, gauza asko eskatu dutzut, eta danak igual ez jatzu kabituko zakuen. Ni gertu nau zuri eta beste edozeñi lagunketako.

“Gureko nauke herritarrei ulertaratzie Udala geure zerbitzura dauela baiñe ez garela hari begire bizi biher”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Kepa Martelo

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 23a / 237. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Gazteendako, batez ere, egitarau borobila izango da Gabonetan

IKER BARANDIARAN

Udalak hainbat ekintza antolatu ditu datozen asteotarako. Gabonetako ohiko ekintzez gain, oporraldi honetan umeei eta gaztetxoek eskaintza handiagoa izango dute, ludotekari eta gaztelekuari esker. Izan ere, biek hala biek egitarau bereziak egin dituzte.

Gaur, egubakoitza, hasiko dira ekitaldiak herrian. 20:00etan Musika Eskolako Bandak, urteroko hitzorduari jarraituz, kontzertua egingo du San Pedro elizan. Biharkoa, zapatukoa, egun bereziagoa izango da, jakina. 12:30ean, umek elkartuko dira plazan Gabonetako kantuak abesteko. Horren ostean eta 13:30ak bitartean, Olentzeroren laguntzaileek gutunak jasoko dituzte. Eta ordu berean, Trikitixa Eskolakoek kalejira egingo dute. Horrekin guztiarekin bat, goiz

osoan gaztaina erreak banatuko dituzte plazan.

Iluntzearekin bat, 17:30ean, Olentzero Apotzagatik jaitziko da eta txistulari eta soinu jotzaileekin batera kalez kale ibiliko da ume eta helduei arreta egiten.

Gabon kutsuko ekintzek 2006an jarraituko dute. Hilaren 4an, eguaztena, bi biolin jotzailek eta piano jotzaile batek Gabonetako kontzertua egingo dute Ibarraundi museoan. 18:00etan izango da. Eguenean (hilaren 5ean), berriz, Erregeen kabalgata egingo dute.

GABONETAKO PARKEA

Txikienei ez dute aspertzeko astirik izango. Hilaren 27an, 28an eta 29an Gabonetako parkea izango da kiroldegian. Bi zatitan banatuta izango dute: batetik, kantxan, puzgarriak, tailerrak, ludoteka eta rokodromoa. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egingo da zabalik zerbitzu

hori. Eta bestetik, igerilekuan, puzgarri mordo jarriko dituzte. Adinaren arabera, ordutegiak bereiztuko dituzte: 11:00etatik 13:00etara 11 urtetik gorakoak; 17:00etatik 18:30era 6 eta 10 urte bitartekoak; eta 18:30etik 20:00etara 0 eta 5 urte bitartekoak, heldu batek lagunduta.

Hiru egunerako txartelak 6 euro balio du eta egun bakoitzekoak, berriz, 3 euro.

FILMAK ETA LUDOTEKA

Hilaren 30ean, *Gabonetako ipuina* filma emango dute Ibarraundin. Urtarrilaren 8an, berriz, *Shin Chan*, *Samurai txikia*. Emanaldi biak hala biak euskaraz izango dira, eta euro baten truke.

Berrikuntza moduan, Gabonetako jai hauetan ludoteka zabalduko dute hilaren 26tik 30era, eta urtarrilaren 2tik 5era hainbat ekintza egingo dituzte: familiendako jolasak, Gabonetako postalak egiteko tailerrak, Errege panpinak eta film emanaldiak, hain zuzen ere.

GAZTELEKUA ETA GAZTETXEA

Urtarrilaren 7an, Sorkunek *Duna* diskoa aurkeztuko du eta Oñatiko Malenkoniak kantu berriak joko ditu. Kontzertu hori gazte txean izango da.

Gaztelekua estreinatuta dute, eta, hainbat ekintza egingo dituzte datozen egunotan. Astelehenean, hilaren 26an, irekiera jaia; martitzenean, mahai futbol txapelketa; eguaztenean, eskulan tailerrak; eguenean, gaztelekua margotuko dute; egubakoitzean, zirkotailerra; eta urtarrilean, film emanaldiak, irteerak eta beste.



TESAn sarriak, segurtasun-ateak eta txartel bidezko ate-sistemak egiten dituzte.

Protestak, TESAn langile bat kaleratu dutelako

I.B.

Hilaren 13an TESA enpresan langile bat kaleratu zuten. Enpresako langileak ez daude ados erabaki horrekin, eta hainbat mobilizazio deitu dituzte. Gaur, egubakoitza, manifestazioa egingo dute 19:00etan, TESA enpresako ataritik abiatuta. Herriko plazara jaitziko dira.

Ekainean TESA enpresako arduradunek aditzera eman zuten langile murrizketa egin gura zutela. Enpresa horren jabe den Suediako Assa-Abloy multinazionalak erabaki hori hartu zuen, eta Irungo eta Eskoriatzako TESA enpresetan 100 langiletik gora kaleratzea zen asmoa.

ZE BARRI?-k TESAn arduradunengana jo zuen informazio eske, eta enpresak adierazi zuen Eskoriatzako plantako 22 langile-ri eragingo zela erabaki horrek. Hala ere, azpimarratu zuten langile horiei aurretiko erretiroa

eskainiko zietela baldintza egokietan. Hala eman zieten aditzera langileei ere, eta hainbat langilek euren burua boluntario aurkeztu zuten.

USTEKABEKO KALERATZEA

Langileen ordezkariek, berriz, esan digute hilaren 13an J.A.P. izeneko langileari arduradunek deitu, eta hurrengo egunean lanera ez bueltatzeko esan ziotela. Langileen ordezkarien esanetan, J.A.P.ri esan zioten bera zela "kaleratu beharreko 22. langilea".

Langileek honako hau azpimarratu digute: "Enpresan 22 lagunek aurretiko erretiroa hartzeko borondatea aurkeztu zuten. Hala ere, enpresako arduradunek hori jakin arren, J.A.P.-rengana jo dute eta berorren kontratua eten dute, inolako arrazoi berezi barik".

Hortaz, JAPrekin egin dutena salatzen, langileek batzar bidez hainbat mobilizazio deitu dituzte. Lehenengoa gaur, egubakoitza, TESAn ataritik abiatuta egingo duten manifestazioa, 19:00etan.



I.B.

Udalak Egin zure Gabonetako marrazkia zozketa egin zuen. Argazkian, saridunak.

SAION DE BELLETA
OSASUNA ETA EDERCINTZA
DORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

LENIZ, C.B. KONPONKETAK
LENIZ
ESKORIATZA
TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
SUZUKI
Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Gaurko, egubakoitza, manifestazioa deitu dute langileek. 19:00etan irtengo dira TESA paretik

Langileek salatu dute aurretiko erretiroa jasotzeko boluntario nahikoa daudela

ELKARRIZKETA

ANA NEVADO / 'BASETXEA' SAIOKO LEHIAKIDEA

"Lagunek ez didate uzten 'Gran Hermano' saioan izena ematen"

MIKEL BARANDIARAN

Ana Nevado gazte esko-riatzarra ETBleko *Basetxea* saioan ibili da lehiazten. Aitziber Aranburuzabalak elkarrizketa egin zion Arrasate Irratian, eta guk orrialde hauekarak ekarri ditugu Nevadoren esanak.

Zer moduz ikusten duzu zure burua telebista aurrean?

Ni normalean ez naiz horrelakoa. Telebistan oso isila naizela ematen du, baina kalean askoz alaiagoa naiz eta askoz berba gehiago egiten dut.

Zergatik telebista aurrean serioago? Kamerek beldurra ematen dutelako ala lehiaketa bat delako?

Ez gaude ohituta telebista aurrean egoten, eta hori gogorra egiten da. Hasieran isilago nengoen, baina denbora pasatu ahal konfiantza hartzen joan naiz.

Proba gogorak egin behar izan dituzu.

Bai, ia proba guztiak gogorak izaten dira. Nazkagarriena izan zen zizareak jan behar izan nituenekoa. *Casting*-a egin nuenean esan nien ez nuela halakorik jango. Esan zidaten gose egonez gero, agian hori egiteko gai izango nintzela. Ez zen gosearengatik izan, baina jan egin nituen, eta nik ere ez dut sinesten egin nuenik.

Zergatik eman zenuen izena *Basetxea*-n?

Nik hasieran *casting*-ean esan nuen ospe bila nindoala, baina ez zen hori kontua. Azken finean, lehiakide guztion helburua izan da saria eskuratzea, hiru milioiak lortzea.

Zer egingo zenukeen saria irabaziz gero?

Auto bat erosi, birritan pentsatu barik.

Esperientzia moduan garrantzitsua izan da lehiaketa horretan esku hartzea?

Bai, oso garrantzitsua izan da. Eta gainera, lagunak egin ditut. Bueno, batzuk bai eta bes-



MIKEL LUPIAÑEZ

"Basetxea"-ko lehiakideen helburua zen hiru milioiak eskuratzea, ez ospetsuak egitea"

te batzuk ez. Ezinezkoa da guztiakin ondo moldatzea.

Egia da pantailaren beste aldean ikusten dena eta atzean dagoena desberdinak direla?

Bai. Guri erredaktoreak hasieran esan zigun guk etxetik *Basetxea* erabat desberdina ikusiko genuela, zerikusirik izango ez zuela. Eta hala da. Guk saioan ez genuen ikusten lehiakide bakoitzak zioena, eta gero etxean ikusita harrituta gelditu gara.

Zelan daramazu ezagun izate hori herrian?

Arrasateko taberna baten lan

"Telebistan agertu nintzen lehenengo egunean lotsa ematen zidan kalera irteteak"

egin nuenean jende askok galdeztzen zidan. Eskoriatzan, berriz, lehenengo egunean lotsa ematen zidan kalera irteteak, jende guztia galdezka ibiliko zelako. Eta hala izan zen: neuri, amari... Jende guztia galdezka.

Izena emango zenuke, adibidez, *Gran Hermano*-n?

Nik esaten dut baietz, baina lagunak ez didate uzten. Trapu zahar guztiak ateratzen dituztela eta kalte egiten dizutela diote. Horrela ikusita ez dakit merezi duen, baina dirua erraz irabazteko aukera bat da.

Presoen eskubideen aldeko babesak eta ekimenak

I.B.

Etixerat elkarteak hainbat talde eta herritarrengana jo du presoen eskubideen aldeko atxikimendua lortzeko. Erantzun zabala jaso du, eta prentsaurrekoa egin zuten jaso duten babesak eta dituzten eskaerak aditzera emateko. Presoen aldeko ekintzetan esku hartzeko dei egin zuten.

Euskal Herriko hainbat elkarte, eragile eta lagun ezagunek presoen eskubideen aldeko dokumentua hitzartu zuten Ibaetan. Orain Etixerat dabil herriz herri dokumentu horren aldeko atxikimenduak batzen, eta euskal presoen gaineko hainbat eskaera egiten.

Eskoriatzan eguaztenean egin zuten horren aurkezpena. Presoen eskubideen alde egin gura duten hainbat herritarrek prentsaurrekoa egin zuten.

KULTURA ETA GIZARTE ARLOKO JENDEA

Lagun dezente batu ziren presoen eskubideen alde egiteko. Hainbat alorretan lan egiten duen jendea

aurkitu genuen han. Han izan ziren Edorta Zubizarreta, Mario Padilla, Isabel Guridi eta Andoni Bengoa, esaterako.

Horiez gain, musika taldeetako eta gazte batzarreko hainbat ordezkari izan ziren presoei atxikimendua ematen.

HAINBAT MOBILIZAZIO IRAGARRITA

Etixerat elkarteak aditzera eman zuen datozen egunotan hainbat ekintza egingo dituztela herriko presoen alde. Hain zuzen ere, hileko azken egubakoitzean, urtarriaren 30ean, kartelada egingo dute eta presoen argazkiak itsatsiko dituzte udaletxeko horman, 19:30ean.

Urteberriko egunean, 01:00etan, berriz, topa egingo dute Mari-xol Iparragirre eta Mikel Illarramendiren omenez. Horrez gainera, esan digute Iparragirren eta Illarramendiren gutunak irakurtzeko asmoa dutela, "ordurako hel-tzen badira".

Eta Etxeratek gonbita egin zuen urtarriaren 7an Bilbon presoen alde egingo den kale agerraldira ere joateko.



DEIANE ARRIETA

Argazkian, herriko presoen aldeko atxikimendua eman zutenetako batzuk.

LABUR

Almen guneko ikasleak indiarrengandik ikasten ibili dira azken asteotan

Arizmendiko Almen guneko 4. mailako ikasleek indiarren gaineko ekintzak egin dituzte. Maia, azteka eta bestelako indiarren gaineko erakusketa egin dute, eta kultura horien hainbat gauza ikasi dituzte: zer erremintak erabiltzen zituzten, zer produktu ekarri zituzten Europara eta zer dantza egiten zituzten, besteak beste. /I.B.

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA



Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

AZKOAGA ESTANKOA

943 71 48 77
Zure Zerbitzura

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko abenduaren 23a / 177. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorlora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Gaur (barikua) hasi eta urtarrilaren 8a arte, ia egunero dago ekitaldiren bat


UBANE MADERA

Urtero moduan, Olentzerok jaso du aramaiarren deia herritarrek bisitatzera etortzeko eta berretsi digu bihar iluntzean jaitsiko dela menditik, 18:00ak inguruan. Horrez gainera, Gabonetako egitarauaren barruan, umeendako ekitaldi mordo antolatu dituzte.

Hasteko, gaur, barikua, 22:00etan, helduendako zinema emanaldia izango da. *El puente de San Luis Rey* drama emango dute. Besteak beste, Robert de Niro, Kathy Bates eta Gerldine Chaplin aktoreek parte hartzen dute filman.

OLENTZEROREN ETORRERA

Bestalde, lehen esandako moduan, Olentzero bihar iritsiko da Aramaiora. 18:00etan kiroldegi ondoan da hitzordua. Handik plazara joango da kalejiran, Aramaioko umeek, trikitilariak eta txistulariak lagunduta; eta bidean gozokiak banatuko ditu nonahi traktore gaintik. Gero, Sastiña ermitan eseriko da, umeen gutunak batzeko. Bien bitartean, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzek Gabon kantak abestuko dituzte.



Ohiturari jarraituz, Olentzero menditik jaitsi, traktorean jarri eta plazara joango da, umeen gutunak hartzera.

UMEENDAKO ETA GAZTEENDAKO

Hurrengo egunean, berriz, umeendako zinema emanaldia egingo dute, 17:30ean kultura etxean. *Spiderman 2* emango dute. Eta astelehenean, lantegiak egingo

dituzte, 11:00etan hasita, kultura etxean, horiek ere umeendako.

Eta eguaztenean, 12:00etan, berriz, umeendako *Elefante Jakinguratsua* antzezlan antzeztuko dute.

EUSKARAREN JAIA

Bestalde, egunean, Zuiako Koadrilaren eskutik, Koadrilako Umeen Euskararen Jaia ospatuko dute, Izarran. Aramaiotik hara joateko autobusa 09:30ean aterako da eta 14:30ean bueltatuko da.

6 urte baino gutxiagoko neska-mutikoen nagusi batekin joan beharko dute. Besteak beste, antzerkiak, puzgarriak eta lantegiak izango dira Izarran.

OIHULARI KLOWN ETA IPUIN KONTALARIA

Eta Gabon jaien bigarren asteari dagokionez, abenduaren 30ean, barikua, 22:30ean, Oihulari Klown taldeak *Zai beti zai lana* antzeztuko du, helduendako.

Urtarrilaren lehen, berriz, 17:30ean *El día de mañana* filma emango dute, umeendako. Eta martitzenean, ipuin kontalaria etorriko da Aramaiora, 17:30ean; 3-5 urte bitartekoendako saioa egingo du, eta 18:00etan 6 urtetik gorakoendako.

BERTSO EKITALDI IKUSGARRIA

Bukatzeke, urtarrilaren 4an, eguaztena, *Igelaren Trikimailua* izeneko folk kontzertua egingo dute, 20:00etan. Barikurako, berriz, bertso ekitaldi ikusgarria antolatu dute, 19:00etan: Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Nerea Elustondo, Xabier Paia eta Andere Arriolabengoa bertsolariak jardungo dute. Eta domekan, umeendako zinema emanaldia egingo dute, 17:00etan. *La búsqueda* filma emango dute.

HERRITARRENHITZA/Kepa Lizarralde Zalgo • Gaztea

Holan ezin geinke jarraitu

Aurreko baten Bitorixan pasau jatena: Dato kaleko kafeterixa baten sartu eta "bi kortau mesedez" neuk argi eta garbi, eskuko bi atzamar jasoaz. "Que?! Cuánto?!" barrako gizonak hasarre tonuaz. Barrero atzamarrek erakutsitte "bi kortau". "Sí, cortado sí, pero cuántos!!" gero eta hasarriau. Neu neurera: "bi", oiñ be atzamarrekin argi erakutsiz zenbat gure dittudan. "¡Jodé chaval! háblame en castellano que no te entiendo nada!" oso hasarre gizona. Neuk berak baño hasarre mosu haundixau ipiñi eta ezer esan barik eskue jaso eta bi atzamar erakutsi, barrero be. Hor juen zan azkenien bi kafio ataraten.

Hau Bitorixan pasau jaten baño, zoritarrez, Euskal Herriko beste edozein herri be izen leiken. Egoerie be (euskeraz ez jakitte hori) normala eitten jaku, asumirute moduen daukegu leku danetan euskeraz eziñ eiñ hori. Bañe honek emuten dau zer pentsau. Bat: geure herriren, Euskal Herriren, bertako hizkuntzie dan euskerie eziñ geinke leku danetan ebali, beraz, euskaldunok eziñ geinke euskeraz, normalidade danaz, bizi Euskal Herriren. Bi



"Eiñ deigun beti euskeraz lelengo berbak"

ariketa bat eitteko proposamena botaten dotzuet, urte barreriko dittugun asmo onen artien sartu deigun: goiezen lekure goiezela

Jarrerie. Gauza bat da euskeraz ez jakitte eta beste bat da euskeriaz eta euskeraz eittie gure dogunokin hartzen dan jarrerie: jarten dan mosu txarra, entzun biher izeten dittugun astakerixak, kasurik ez eittie, ixilixilik begire gerakettie guk erderaz noz eingo zain... Eta hiru. Holan ezin geinke jarraitu. Honegatik,

(Euskal Herriren) eiñ deigun beti euskeraz lelengo berbak (gutxienez). Hasieran ez da samurre, batez be herri/auzo erdeldun baten edo hiriburu baten gazenien, kostau eiño jaku, gehixen bat bestalde-kuek euskeraz ez dakixela intuituruten dogunien. Dana dala, batzutan (espero dogune baño sarrixau) sorpresa onak be hartuko dittugu, eta ariketa honekin aurrera jarraitetako indderra hartuko dou.

Laburbilduz: erakutsi deigun nortzuk garen eta geure herriren geure hizkuntzan bizi gure dogule, ikusi deixela euskeraz eitten dauela jentiek eta euskeraz eitteko eskaketan dogule. Bi berbetan: EXIJIRU EUSKERIE.

LABUR

Urtarrilaren 1etik aurrera, erretzea debekatuta

Udalak gogorarazi digu urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartuko dela tabakoaren kontrako legea. Horren ondorioz, eraikin publikoetan eta jakina, lokal publikoetan ezin go da erre. Horrenbestez, Udalak jakinarazpena bidaliko die kultura etxean egoitza duten kultura talde guztiei, gazte lokalen erabiltzaileei eta erretiratuei erretzeko debekua bete egin beharko dutela gogorarazteko. Halaber, jakinarazi digute udaletxean bertan ere ezingo dutela erre.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Batika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erizaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05*
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izartxoaren orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BASERRITARRENDAKO OHARRA

Zera jakinarazi digu Aramaioko Udalak: Arabako Basogintza Elkartea dabilela pentsatzen Aramaion ordezkari-tza ipintzea. Elkartea horren asmoa da hilean behin-edo etortzea Aramaioko Udaletxera, eta handik, herriko baserritarrei zerbitzua ematea. Basogintza Elkartea nahi duena da mendian lurrak dituzten baserritarrek elkarteko bazkide egitea. Izan ere, gero elkarre horrek lagundu egingo die Foru Aldundiarekin-eta egin behar izaten dituzten gestioak-eta egiten. Udalekoek esan digute oraindik ez dutela zehaztu noiz hasiko diren Aramaiora etortzen, ezta zenbatean behin etorriko diren ere. Egutegia landu ostean jakinaraziko dute hori guztia.

DATORREN ASTEAN, OSOKO BILKURA

Hileko azkeneko eguaztena izanda, ohiko osoko bilkura deitu dute datorren asterako. 18:00etan hasiko da, betiko moduan.

Herriko presoak gogoan izango dituzte Gabonetan

UBANE MADERA

Presoen aldeko herriko taldeak gogoan izango ditu Luis Mari Azkargorta eta Jon Agirre aramaioarrak Gabon jaietan. Horretarako, zenbait ekitaldi antolatu dituztela jakinarazi digute. Besteak beste, bihar, zapatua, auzoz auzo ibiliko dira auto karabanan.

Goizean dute hitzordua presoen aldeko auto-ilara egiteko: 09:00etan kiroldegi aurrean. Handik aterata, Untzilla aldera egingo dute, eta herriko auzo guztiak bisitatuko dituzte musikak eta etxafuegoek lagunduta. Presoen aldeko laguntza eskuratu nahi dute.

Horrez gainera, hurrengo asteari begira eta abenduaren 30a hileko azken barikua dela

kontuan hartuta, dei egin dute ohiko kale bilkuran parte hartzeko. Bizente Goikoetxea plazan izango da, 19:30ean. Herriko bertsolariak lagunduko dute kale bilkura hori girotzen.

URTEARI AGUR ESATEKO

Bukatzeke, urteko azkeneko egunean, iluntzerako txikiteoa antolatu dute. Hor ere bertsolarien eta trikitilarien laguntza izango dute.

Lehen esandako moduan, ekitaldi horiekin Luis Mari Azkargorta eta Jon Agirre preso aramaioarrak gogoan izan nahi dituzte. Luis Mari Azkargortak 14-15 urte daramatza preso. Orain Zaragozan dago, Zuerako kartzelan. Jon Agirre, berriz, Lañgaitzen dago orain. Baina 24 urte egin ditu preso, Euskal Herriko kanpoko kartzelatan.

Bihar, zapatua, auto-karabana egingo dute auzoz auzo, 09:00etan hasita

Abenduaren 31n, iluntzean txikiteoa egingo dute, trikitilariekin eta bertsolariekin

LABUR

Liburutegia eta ludoteka itxi egingo dituzte zenbait egunez; udaletxea ez

Liburutegiko eta ludotekako arduradunek jakinarazi digutenez, datorren astean, astelehenean, martitzenean eta eguaztenean liburutegia eta ludoteka, biak zabalduko dituzte, betiko ordutegiarekin. Baina hortik aurrera, oporrak izango dituzte: abenduaren 29tik urtarrilaren 9a arte.

Udaletxeari dagokionez, berriz, jakinarazi digute zerbitzua beti bezala emango dutela, ez dutela itxiko, Gabonetako jai egunak asteburuan tokatzen dira-eta. Besteak beste, zabor bilketa zerbitzuak ere ez du aldaketarik izango. Errege eguna, urtarrilaren 6a izango da salbuespena.

Aramaixoko Trikitixa Eskolako zozketako sariak hartzeko epe-muga

Aramaixoko Trikitixa Eskolakoek San Martin egunean egin zituzten zozketako sariak hartzeko azkeneko eguna abenduaren 31 izango da. Honako zenbaki hauetako bat dutenek nekazari etxe baten asteburuko egonaldia irabazi dute: 1.671; 3.598 eta 4.428.

Horrez gainera, bestelako sariak ere eman zituzten. Trikitixa Eskolako hiru kamiseta honako zenbakiendako: 4.251; 1.659 eta 2.724. Eta Araba Euskarazko beste bi kirol-jertse honako bi zenbakiendako: 2.590 eta 3.512.

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak urtea agurtzeko deialdia egin du

ATGak urtea agurtu nahi du modu berezian, eta horretarako dei egin die Aramaioko gazteei eta gainerako herritarrei ere bai abenduaren 31rako. *Txin-Txin* egingo dutela iragarri digute, afalostean, 00:30ean, Bizente Goikoetxea plazan.

Eskolakoek Gabon jaialdia egin dute, arrakasta handiarekin

U.M.

Eguaztenean ospakizunetan ibili ziren San Martin Eskolakoak. Batetik, goizean Olenzeroren bisita izan zuten eskolan; besteak beste, hamarretakoa egin zuten harekin. Bestetik, arratsaldean Gabon jaialdia egin zuten kultura etxean.

Bertsoak, Gabon kantuak, antzerkiak, kontzertuak... Denarik egin zuten San Martin Eskolako neska-mutikoen Gabon jaialdian. Gainera, euskaraz, espainolez eta ingelesez egin zituzten ekitaldietako batzuk. Hala, pare bat orduz zinema aretoa goraino betetzea lortu zuten. Izan ere, aurten, umeak eta irakasleak egoteaz gainera, gurasoei gon-

bidapen berezia egin zieten Gabon jaialdira joateko, eta ludotekaraino zabaldu behar izan zuten zinema aretoa, ikusle guztiei lekua egiteko. Kontuak kontu, joan zirenak pozik geratu ziren eta umeak are pozago ibili ziren taula gainean.

Gabon jaialdiaren bitartez, oporrak hartu zituzten neska-mutikoen urtarrilaren 9a arte.

GOIENARA BISITA

Bestalde, eskolako kontuekin jarraituz, joan den astean Goiena Komunikazio Elkartea Arrasaten duen egoitzara bisita egin ziguten seigarren mailakoek. Oro har, kazetariak zelan lan egiten dugun ikustea zuten helburu, eskolan gai hori lantzen dabilta-eta. Prentsa, telebista eta irratia ikusi zituzten.



UBANE MADERA

Baserritar jantzita joan ziren jaialdira eskolako ume gehienak.



MIKEL LUPIAÑEZ

Seigarren mailakoak Goienako egoitzan, Txiritola aldizkaria egiten dugun lekuan.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 23a / 32. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: 55483/05

'Olentzero' antzezlanana egingo dute gaur, 18:30ean, kultura etxean

XABIER URTZELAI

Gaur, egubakoitza, antzetzuko dute herriko hamar gaztetxok *Olentzero* izeneko lana, 18:30ean hasita. Bi hilabete eman dituzte antzezlanana prestatzen, ludotekan, eta gu eguaztenean izan ginen eurekin, azken entseguetako batean.

Ezin galdu daitekeen lana izango da gaurkoa, herriko gazteek kultura elkarrean egingo dutena. Baliteke ikusleak harridura geratzea *Olentzero* lanarekin, begirale lanetan dabilen Ainara Olabarrietak azaldu digun moduan: "Guk asmatu dugun istorioa da, bertso berria, denon artean egindakoa. Istorioa asmatzen hasi ginenean nik hainbat proposamen bota nizkien, baina eurek erabaki zituzten nondik norakoak".

Eta, istorioaren laburpentxoak egiteko eskatu diogu Ainarari, zerbait kontatzeko, behintzat: "Gazte koadrila batek Olentzerorekin egingo du mendian topo, baina Olentzero min hartuta dago. Gazteek erabakiko dute Olentzerori opariak banatzen laguntzea, baina oztopoak izango dituzte (sorgina), eta baita laguntza ere (maitagarria)". Ez dugu gehiago aurreratuko.



Olentzero antzezlaneko hainbat aktore, eguaztenean egindako entseguan.

GAITZENA, DENAK ELKARTZEA

Azaroan hasi ziren antzerkia egiteko prestatzen, eta Ainarak esan digu gaitzena entseguak egiteko gazte guztiak elkartzea izan dela: "Testuak ikasteko modu onena da denok elkartu eta antzezlanana behin eta berriro errepikatzea. Baina, gutxitan elkartu ahal izan gara denak, eta

ahal izan dugun moduan egin ditugu entseguak". Antzezlanaren iraupenaren gainean, Ainarak, badaezpada ere, ez du ezer aurreratu: "Orain dela bi urte ere egin genuen horrelako antzezlan bat. Urduri zeudelako-edo, gazteek berehala egin zuten dena, eta bost minututan amaituta zegoen. Oraingoa luzeagoa egin

dugu, baina ez dakit zenbat iraungo duen".

Antzezlanana prestatzearekin batera, aipatzekoa da ludotekan ibili direla antzezlanana girotzeko jantziak eta dekoratua egiten. Horrek esan gura du, eurek asmatu dutela istorioaren nondik norakoa, eta baita dekoratuko marrazki guztiak egin ere.

LABUR

Olentzerorekin baserriz baserri bihar, zapatua

Gurasoen Elkartek antolatuta, gatzagarrek bihar lagunduko diote Olentzerori baserriz baserri, baserritar jantzita, noski. 09:00etan elkartuko dira, herriko plazan, eta autobus txiki bat alokatuta, baserriz baserri egingo dute ibilbidea. Trikitien eta panderoen doinuez lagunduta, giro ezin hobean igaroko dute goiza. Eta, baserrietan jango dituzten pintxoekin nahiko ez bada, eguerdian elkartuko dira guztiak bazkaria egiteko.

Sahararen alde jostailu eta janari bilketa, Labidean

Joan den astean aurreratu genuen Labidea dendan Saharara bidaltzeko jostailuak batzen dabiltzala, *Erakuts diezaiozun Olentzerori Saharako bidea* lelopean. Horrekin batera, baina, janari bilketa ere egiten dabilta, eta astelehena izango da, hilak 26, janaria Labideara eramateko azken eguna. Jostailuei dago kienez, Olentzerok ez du presarik, eta luzaroan egongo da jostailuak batzen.

Hamar bikotek eman dute izena Gabonetako Pilota Txapelketan

X.U.

Astelehenetik aurrera giro polita izango da Gatzagako pilotalekuan, eguenean batez ere. Astelehenean hasiko dituzte Gabonetako Pilota Txapelketako lehenengo kanporaketak.

Hamar bikotek eman dute izena Gabonetako Pilota Txapelketan eta horrek esan gura du, zortzi bikoteko txapelketa egin

ahal izateko, alde aurreko bi kanporaketa jokatu beharko dituztela. Hala, astelehenean, hilak 26, zozketa bidez aukeratu dituzten lau bikotek jokatuko dituzte lehenengo norgehiagokak (17:00). Sailkatzen diren bi bikoteak gainontzeko sei bikoteekin batera lehiatuko dira eguaztenean (17:00). Eta, eguazteneko bikote onenak eguenean, hilak 29, jokatu duten final handirako sailkatuko dira. Eguenean 16:30ean hasiko dituz-

te partiduak, nagusien txapelketarekin batera Labidea Torneo ere jokatu dute-eta.

LABIDEA TORNEOA

Arrasateko eta Gatzagako pilotari gazteek jokatu dute torneo hori, eguenean baita ere, eta herri bakoitzeko zazpi bikote ibiliko dira lehian. Egun horretan pilotalekuan aire librean dagoen aldea olanaz estaliko dute, eta sua ere egingo dute, finalak giro onean jokatuko.



Aurreko txapelketan, eskuetan min ez hartzeko takoak jartzen.

GOENKARIA



KTIBOS

GELYK GABON
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE



ZAPATA DENDA

Murubide 2 behea / Tel.: 943 53 37 33 / ARETXABALETA



TEKILOU

Ordenagailu
eta proiektagailu bidez
gidatutako eskolak

Arbel digital baten
laguntzarekin

Mota guztietako gidatzeko bai-
menak ateratzeko aukera.
LARRINGANEK.

Ordutegia, zure beharretara
egokitua.
LARRINGANEK.

Testak egiteko CD bat etxera
eramateko aukera,
irakaslearen jarraipen osoarekin.
LARRINGANEK.

Gogo pixka bat.
NORBERAK.

Trafikoko test
Berriak!

*Zorionak
eta
urte berri on!*



Basabe poligonoa F-0-7
Aretxabaleta

Garibai etorbidea 5
Arrasate

ADI GAZTE!

ABENDUEN 26xen ESKOITZAN GAZTELEKUE ZABALIK!

SEKULAKO AUKERIE LAGUN ARTIEN EGON ETA HEURE BURUE HAMAIKA KONTUTARA ZABALKETAKO!

Abenduek 26: IREKIERA JAIXE, grafiti emanaldixe, henna taillerra, merendolie...

Abenduek 27: FUTBOLIN TXAPELKETIE

Abenduek 28: ESKULANAK: pulserak, maskarak, markuek...

Abenduek 29: Artista eta ez artistak inbitaute dauz gaztelekue margotzera

Abenduek 30: ZIRKO TAILERRA: monoziklue, pelotak, makilla txinuek...

Urtarrillak 2: ZINIE

Urtarrillak 3: IZOTZ PISTARA URTEERIE

Urtarrillak 4: TXALAPARTA emanaldixe eta TXISTORRA!



eskoriatza
udala

Presta zaitez
laser
depilaziorako.

LASER DEPILAZIOA

- Besapeak
- Iztaiak
- Aurpegia (bibotea, patillak)
- Sorbalda
- Hankak
- Besoak

Udan gorputzak eskertu egingo dizu.

Gemes
estetika

Gemes estetika zentroak Gabon zorientsuak opa dizkizue!

Hargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18
ARETXABALETA